

**hh**  
**hik hasi**

**184**



**KULTUR ONDAREAREN TRANSMISIOA • HUR GOROSTIAGA •**  
**0-3 ZIKLOKO HEZITZAILEEN FORMAZIOA • KOSMODISEA**  
**• JOKIN ZAITEGIREN EKARPENA • OIER ARAOLAZA**

## ALBUM ILUSTRATUAK eta KOMIKIAK




## IPUINAK



## JOLASTEKO LIBURUAK



## EZAGUTZA LIBURUAK



# aurkibidea



**10**  
gaia

## KULTUR ONDAREAREN TRANSMISIOA

Ezagutzen ez dena, ulertu eta maitatu ezin denez, berariaz heldu behar zaio transmisio-lanari. Hainbat herritan gertuko kultur ondarea jasotzeko eta ezagutarazteko baliabide pedagogikoak sortu dituzte, eta helburu berarekin, eskola eta herriko eragileak inplikatu dituen bidea proposatu du Iñigo Ramirez de Okariz irakasleak idatzi duen tesiak.



**18**  
elkarrizketa

## HUR GOROSTIAGA

Seaskako zuzendaria da Gorostiaga, 2008az geroztik. Goraka doa haurren kopurua Iparraldeko ikastoletan, eta horrexek berak ekarri du, Gorostiagaren arabera, ikastolan Frantziako Estatuaren jomugan jarri izana. Ikastolek, haatik, euren atea jotzen duten ikasle guztiak hartuko dituzte, berau baita haurrak euskalduntzeko toki bakarra Iparraldean.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

## ONDAREAREN TRANSMISIOA:

ezagutu, maitatu, bizi

18 elkarrizketa

**HUR GOROSTIAGA** Seaskako zuzendaria

24 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa

31 esperientziak

**KOSMODISEA:** Eraikuntza, talde-lanetik abiatuta

33 ekarpenak

Jokin Zaitegiren ekarpenak euskal curriculumari

36 galdeidazue

Nola bultza dezakegu eskola komunitatea osatzen duten kideen parte-hartze aktiboagoa? MAITE DARCELES

40 hik hasi-ren proposamena

**PAGOETAKO PARKE NATURALA** Natura eta kultura saski berean

42 Atzeko atetik OIER ARAOLAZA

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitza eta Arantzazu Muñoa. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Argazki Press. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2013-12-12). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan itazaroa aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

# Eman diezaiogun hezkuntzari garrantzia



**Harpide zaitetz, eta indartu ezazu hezkuntza komunitatea**

-50 euro urtean jarrita 10 hik hasi aldizkari, ale monografikoak eta Euskal Herriko baliabide pedagogikoen gida. Horrez gain, prezio bereziak Udako Topaketetan, jardunaldietan eta argitararaten ditugun gainontzeko materialetan.

-20 euro urtean ordainduta 4 Hazi Hezi aldizkari.

Bi aldizkariak hartuta, 65 euro urtean.

## **Duela bi urte agortutako CDA berrargitaratua**



- Bidaietako jolasak
- Zotz egitekoak
- Zabuan kantatzekoak
- Txalotako jolasak
- Soka saltoan aritzekoak
- Txikientzako jolasak
- Korroan aritzekoak
- Gomatakoak
- Behatzen jokoak
- Taldean aritzeko jolasak
- ...

**[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)**

# editoriala

# urtarrila

## *Euskarazko irakaskuntza, berriro ere, jopuntuan*



**Larria da irakasleak zelatatzea, larria akusazioa, eta are larriagoa izan daiteke egoera, hezkuntzak arduratzen gaituen euskal herritar guztiok aurre egin ezean.**

1.652 euskal herritar zelatatu ditu Guardia Zibilak. 1.652 irakasle.

Euskarazko irakasle izate hutsagatik.

Jarraipen zehatza egin diete Nafarroa iparraldeko 28 ikastetxetako irakasleei: zein sindikatuko kide diren, legez kanpo utzitako zerrendetan ageri ote diren, senideren bat preso ote dute, kartzelara bisitan jotzen ote diren... eta horietako bat betez gero, etazale direla ondorioztatatu dute.

Larria da irakaste hutsagatik jarraitzea, espiatzea. Eta larria akusazioa. Baina are larriago izan daiteke: neurriak hartuko dituztela iragarri baitute Jose Iribas Nafarroako Hezkuntza Kontseilariak eta Jorge Fernandez Diez Espainiako Barne ministroak, “zerrenda beltzetan” dauden irakasleen aurka.

Euskarazko hezkuntza, berriro ere, jopuntuan dago Nafarroan. Euskararen alde Nafarroan egin den eta egiten ari den lanaren aurkako eraso da. Larria. Haurren eskubideak aintzakotzat hartzen dituen hezkuntza parte hartzailearen aurkako eraso da. Euskal Herriko ira-

kasle guztion aurkako eraso.

Irakasleak zelatatzea gutxi balitz bezala, ikasmateriala ikertu dute. Eta mehatxu egin du Iribasek: “Legea legea da, eta betearazi egingo dut”. Eskutan *arma arriskutsuak* zituen agerraldiko unean: Euskal Herriko mapak erakusten zituzten ikasmaterialak. Espainiako Konstituzioak dioena betearaziko duela agindu zuen. “Nafarroaren errealtate ezberdindua” errespetauziko duela. D ereduko lau irakasletik bategi hezkuntza “doktrinatzeko” asmoz erabiltzen omen duela-eta. Espainiako Barne Ministroak babestu zuen Iribas: «Eskoletan gorrotoa sustatzearen aurka jardungo du gobernuak».

D ereduaren aurkako kanpaina garbia da. Nafarroako Gobernuak, Guardia Zibilak eta Espainiako Barne Ministeritzak orkestratua. Aurrematrikulazioaren bezperetan piztu da zalaparta. Ezin dute besterik egin euskaraz ikasteko hautua zailtzeko, euskarazko irakaskuntza desprestigiitzea baino.

Ez da berria, Carlos Perez Nieves CDNekoa kontseilari zela ere eus-

karazko hezkuntzaren aurkako bidea urratu zuen; UPN eta CDNren gobernu akordioa hautsirik, Alberto Catalan Hezkuntza kontseilari berriak ere Nievasen bidetik jarraitu zuen, orduan “Nafarroaren errealtate ezberdindua” aitortzen ez zuten euskal argialetxeak diru laguntzarik gabe utzi zituen. Gero, ingelesez ikasteko programak indartzea etorri da, euskararen aurrerakuntza etete-ko estrategia gisa, eta halaxe onartu du Yolanda Barcinak, azkenean. Ez da ez berria, frankismo garaiak gogorarazi dituzte Guardia Zibilak, Iribasek eta Fernandez Diazek.

Eta ez da Nafarroan soilik gertatu. Ipar Euskal Herrian ere, euskarazko irakaskuntza gora doanean, Frantziako Estatuak jopuntuan jarri ditu ikastolak. Halaxe adierazi du Hur Gorostiagak, barneko elkarrizketan.

Ondo ari garenen seinale izan daiteke. Ondo euskalduntzen, euskalgintzan eta irakaskuntzan. Baina larria da egoera. Larria eraso. Eta are larriagoa izan daiteke, hezkuntzak arduratzen gaituen euskal herritar guztiok, aurre egin ezean.

# hizpide

## Aurrera darrai Kristau Eskoletako tira-birak

Zentroek langileekin duten zorra tarteko eta lan itunik gabe daudelako bi eguneko lan uztea egin zuten Kristau Eskolako eta IZEako langileek abendu hasieran. Uztailetik aurrera lehengo lan hitzarmena ez dago indarrean, eta erreferentzia gisara estatuko hartzea egozten diete langile eta sindikatuek patronalei.

Sektoreko sindikatu guztiak —ELA, LAB, EILAS, CCOO eta UGT— bat eginda daude protesta horietan. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako sententziaren arabera, ez da egokia patronalek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako langileei, lan itunik ezean, Espainiako Estatukoa ezartzea. Era berean, auzitegiak ez ditu ontzat ematen 2010etik langileen soldatetan egin diren murrizketak ere (murrizketa horien ondorioz dauka orain 18 milioi euroko zorra Kristau Eskolak). Auzitegiaren epaiari helegitea jarri zion ordea Kristau Eskolak.

Langileekin duen gatazka konpontze aldera, soldatetan igoera bat egiteko prest azaldu zen Kristau Eskola —%0,7—, eta, halaber, 2010etik pilatzen ari den zorra —18 milioi euro— onartu, eta sasoi ekonomiko hobekak datozenean hori ordaintzeko bidea egiteko. Sindikatuek proposamen hori onartzen eta izenpetzen badute langileen aldeko epaiaren aurka jarritako helegitea kenduko duela hitz eman du.

## Nafarroako Gobernuak euskararen kontra abian jarria duen kanpaina salatuta eta D eredua defendatu dute

Agindu judizialik gabe Nafarroako D ereduko 1.600 irakasletik gora zelatatu izana salatuz nahiz Nafarroako nahiz Madrilgo Gobernuak irakasle horien kontrako neurriak aztertzen ari direla denuntziatzeko, eta D eredua defendatzeko hainbat ekin-tza ari dira egiten Nafarroako irakasle, eragile eta herritarrek, hala nola, manifestazioak, kontzentrazioak, sindura bilketak eta bestelako protestak. Horren adibide da abenduaren 18an Iruñean egin zen manifestazio jendetsua. D ereduen eta euskararen kontrako kanpaina egiten ari direla leporatuta, Yolanda Barcina Nafarroako presidentearen eta Jose Iribas Hezkuntza kontseilariaren dimisioa eskatu zuten 15.000 herritar inguruk.

Sindikatuetak ordezkarierak arabera, egoera trakesten ari da eta hezkuntzako langileengan izua ari da gailentzen. Irakasleak arduratuta daude, ez dakitelako zelatatuak izan diren edo ez, eta hedabieetan ematen ari zaien traktarengatik. Hala ere, ez dute geldirik geratzeko asmorik eta agiri bana sartu dute hainbat irakaslek erregistroan nola, noren aginduz eta zergatik zelatatu dituzten jakiteko. Ezjakintasun, desinformazio eta airean dituzten galderei erantzuna topatu nahi diete.

Liskarrak azaroan hasi ziren, Guardia Zibilak Nafarroako D ereduari ari diren 1.652 maisu-maistra

zelatatu eta haietatik 441 “etazaleztat” jo zituen. Nafarroako Gobernuak Guardia Zibilaren jarduna babestu egin zuen gainera, eta hainbat neurri iragarri zituen hezkuntza “helburu politikoetarako” baliatzen dutenen aurka. Azkenik, Espainiako Gobernu bera ere Nafarroan D ereduari irakasten duten irakasleen kontrako neurriak aztertzen ari da UPNren laguntzarekin. Oraingoz soilik, zehaztu dute “ETA eta bere tentakuluak” ikasgeletan barneratzea saihesteko neurriak aztertzeari ekin diotela.

### Ikasmaterialak ere ikerketapean

Nafarroako D ereduko eskoletan erabiltzen ari diren materiala ikertzen ere ari da Nafarroako Gobernuak “legea betetzen dutela” ziurtatzeko. Jose Iribas Nafarroako Hezkuntza kontseilariaren arabera, “legea betetzen ez duten liburuak” erabiltzen ari ziren Nafarroako 28 zentrotan. Eskoletan euren materiala gero eta gehiago erabiltzen dutela eta guztiak ikertuko ditu Gobernuak. Guardia Zibilak D ereduko irakasleen aurka egindako txostenaren ondoren dator iragarpen hori. Euskal Herriko mapak erabiltzea da “legez kanpokotzat” jotzeko argudioetako bat. Ez da berria Nafarroako Gobernuak eskola-liburuak jomugan izatea. Aurreko lege gintzaldian ere zortzi ikasliburu utzi zituen laguntzarik gabe.

# izan da

## PISAko azterketan OCDEko batezbestekoaren gainetik daude Hego Euskal Herriko ikasleak

PISAko azterketan emaitza txukunak lortu dituzte Hego Euskal Herriko ikasleek. Lehenbiziko aldiz PISAko azterketan neurtzen diren hiru ikasgaietan —matematika, zientzia eta irakurketa— batez bestekoa pasatzea lortu dute. Hala, herrialde aurretatuaren batez bestekoaren gainetik daude Helgoaldeko ikasleak, ikasgai guztietan. Zientziak izan dira orain arte ahulgune nagusi. Azken urteetan, ordea, aurrerapauso handia eman dute gai horretan eta aurtan notarik onena ere alor horretan lortu dute. Datu orokorreari begiratuta, irakurketan ere badute erronka euskal ikastetxeek, batez ere Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan; bi punturengatik pasa baitute batez bestekoa. Zenbaki orokorretatik kanpoko desberdintasunak zuzendu beharra ere azaleratu du ikerketak. Izan ere, frogia egin duten ikasle batzuetatik besteetara alde handia dago.

Nazioarteko datuei erreparatuz ikus daiteke Asiako herrialdeak indartu direla, batik bat Hego Korea eta Japonia. Finlandiak, berriz, golpea jaso du. Batez bestekotik gora segitzen du, baina nabarmen egin du behera.

Irakurmenari dagokionez, OCDEko batez bestekoaren paretsuan ibili dira azken urteetan Hegoaldeko ikasleak. Salto handia eman dute Nafarroan azken urteetan. 509 puntulortu dituzte oraingoan, aurreko proban baino hamabi gehiago. Gorakada apalagoa da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan: lau puntu gehiago aurreko proban baino; batez bestekotik bi puntu gorago. Gai honetan hala ere, matematiketan eta zientzietan baino nota apalagoak lortu dituzte ikasleek, 500 puntuko langatik behera.

Matematiken arloa da, OCDEko datuei erreparatuta, batez besteko eskasena lortzen den alorra. Hegoaldeko ikasleek, ordea, urteak daramatza-

te matematikan oso emaitza onak lortzen. Azken datuetan beherakada nabari da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbakietan —505 puntu aurtent, aurreko aldi baino bost gutxiago—, baina alde esanguratsua dago batez bestekoarekin konparatuta, hamaika puntukoa. Nafarroako datuak are hobea da: 517 puntu lortu dituzte, inoiz baino gehiago. Matematikakoa da, hain zuzen ere, Nafarroako ikaslearen nota onena PISA txostenean.

Zientzia gaitan zegoen hutsunerik handiena Araba, Bizkaria eta Gipuzkoako ikastetxeetan. Egoera horri buelta eman nahirik Eusko Jaurlaritzak zientzia orduak gehitu eta hainbat tailer jarri zituen martxan. Eta ahalginak eman ditu fruituak. EAEko ikasleek zientzian lortu dute notarik onena orain: 506 puntu. Aurreko azterketan baino bederatzi gehiago dira, eta orain hamar urte baino 22 gehiago. Nafarroan berriz, zientzietan ere, datuak altuak dira beste herrialdeekin alderatuta. 514 puntu eskuratu dituzte aurtengo proban, aurreko aldi baino bost gehiago.

## Zonifikazioaren aurka protesta egin dute Tafallan

Euskaraz bizitzeko eta ikasteko eskubidearen aldeko aldarrikapena egin zuten ehunka herritarrek Tafallan, Euskararen Legeak Nafarroan ezartzen duen zonifikazioarekin bukatu, eta, euskararen ofizialtasuna Nafarroa osoan eskatzeko, “Euskaraz

Bizi eta Ikasi” ekimenak deituta. Hala, eremu ez-euskalduneko herritarrek euren hizkuntza eskubideak bermatzeko dei egin zioten Nafarroako Gobernuari.

Manifestazioaren deitzaileen esanetan, “erabat bidegabea” da Nafarroako eremu ez-euskaldunean du-

ten egoera, euskaraz ikasi nahi baitute, baina legeak ez baitie aukera hori ematean.

Dagoeneko 120 eragileren baino gehiagoren babesak jaso du aldarrikapenak eta aurrera begira ere Nafarroa osoan euskarak dagokion tokia izan dezan lanean jarraituko dute.

# hizpide



## Txantxariak, euskaraz ekoiztutako telebista-saio berria haurrentzat

Urtxintxa Aisialdi Eskolak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendaritzarekin elkarlanean, 3-8 urte inguruko haurrei zuzenduriko telebistako 5 kapitulu prestatu ditu. “Txantxaria Telebista” izenez eman dira ezagutzera Gabonetan zehar, Hamaika telebistaren eta Tokiko telebisten bidez. Hasi berria den 2014. urtean zehar, berriz, kapitulu berriak sortuko ditu. Horrez gain, [www.txantxariak.com](http://www.txantxariak.com) webgunea berria ere sortu dute eta datozen hilabeteetan pikanaka elikatuz eta edukiz osatuz joango dira.

“Txantxaria Telebista” saioaren helburu nagusia da telebistan haur eta familiei zuzendutako euskarazko programazio zabalagoa eskaintzea. Horrez gain, haurren heziketa prozesuetan jolasak baliabide gisa daukan garrantzia ezagutarazi eta euskarazko jolas eta abestien hedakuntzan eragin nahi dute, baita kaleak gizarteratze gune gisa duen garrantzia ezagutzera eman ere.

Era berean, honako balio hauek sustatu nahi ditu, besteak beste: berdinen eta desberdinen arteko harremanen oparotasuna, norbanakoari errespetua, egunerokotasunaren plazeraren bizipena, haur eta helduen arteko arreman ludikoaren aberastasuna, eta epairik gabeko jarduerak egitea.

Egitasmoan, nagusiki, Urtxintxako hezitzaile lan-taldeek hartu dute parte. Ezinbestekoak izan dira hasieran Isabel Alba Rico (*La bola de Cristal*, *Barrio Sésamo*, etab.) gidoilariaren ekarpenak.

## Biktimen testigantzak ikasgeletara eramán dituen Bakeaz Blai programa positiboki baloratu dute sustatzaileek

Biktimintegia izeneko jardunaldiak egin dituzte biktimen testigantzak ikasgeletara eramán dituen Eusko Jaurlaritzaren “Bakeaz Blai” programak bizikidetzan izan dezakeen eragina aztertzeko. Bertan ateratako ondorio nagusia hauxe izan da: “ikasleek sufrimenduarekiko enpatia sentitzea irakaspena dela”. Biktimak aipatzean, ETaren biktimez nahiz poliziaren biktimez ari da programa, guztiak joaten baitira eskoletara lekukotasunak ematera.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2010ean onartutako Bakerako Hezkuntza Planaren harira abiatu zuten Bakeaz Blai. Enpatia eta harrerarako espazioak eratzea du helburu, baita eguneroko bizikidetzaren hobetzeko tresnak ematea ere. Programa horrek biktimen parte hartze aktibo eta zuzena du, baina programa ez da euren testigantzetara mugatzen. Lehen saioa ikasgeletan egiten dute, DBHko eta Batxilergoko ikasleekin, eta bigarrena, “espazio pedagogiko babesle” batean: bi egun eta erdi igarotzen dituzte Gernikako aterpetxe batean; bertan egiten dituzten jardueren artean daude biktimen testigantzak.



# izango da

## Francesco Tonucci Euskal Herriko hainbat arduradun politiko, eragile sozial eta irakaslerekin elkartuko da



Komunitatea Ikaskuntzako Ingurunea egitasmoari loturik, Francesco Tonucci pedagogo italiarra Innobasque-k bultzatutako lan-taldearekin elkartuko da bere ezagutza partekatu eta La Città dei Bambini-ko proposamena ezagutzera emateko. Urtarrilaren 30etik otsailaren 2ra bitartean hainbat saio ireki eta formakuntza ikastaro bat egingo dira eragile sozialei, arduradun politikoei eta interesa duten gainontzeko pertsonaei hiri eta komunitateak egunik egun nola ari diren aldatzen azaltzeko eta horren gaineko gogoeta egiteko.

Azken hilabeetan Innobasque-k, Solasgune-ak, Leioako Udalak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berrikuntzako sailak EHUk, eta Bizkaiko

Diputazioak osatutako taldea “Laboratorio” bat sortzen jardun da, Tonuccik aldarrikatutako ildoari jarraiki, ezagutza eraiki, formazioa lagundu eta proiektuak garatzeko. Tonucciren bisitarekin Haurren Hiria Sarea egitasmoari hasiera eman nahi zaio.

### Eskola Txikietako irakasleekin

Gipuzkoako Eskola Txikien Elkarteak Hezkuntza Sailaren laguntzarekin antolatuta, 2014ko urtarrilaren 27an eta 28an, astelehen eta astearte arratsalde, Francesco Tonucci pedagogo italiarra eskola txikietako irakasleekin elkartuko da, Euskal Herriko egoeratik abiatuta eta bere esperientzia pertsonalean oinarrituz, prestakuntza saioa emateko.

Hainbat gai landuko ditu, hala nola, heziketarako umeak duen eskubidea, jolasteko umeak duen eskubidea edota eskola konpentsatzailea. Alor horiek jorratzeko, baina, eskola txikien errealitatean oinarrituko da: talde txikitan egiten da lan, adin ezberdinetako umeak elkarrekin dauten, herrian eta bertako komunitatean txertatuta egotea, konstruktibismoan oinarrituz libururik gabe egiten da lan, etab. Saioa eskola txikietako irakasleei zuzendua izango da, nahiz eta horiekin aforoa betetzen ez bada, beste hainbat sektoretara ere ireki dezaketen.

## Irakasleen formaziorako hainbat ikastaro

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) irakasleen formaziora bideratutako zenbait ikastaro antolatu ditu urtarrilerako eta otsailerako. Arduino plaka programatzeko tailerra eskainiko du Luis Briñasek urtarrilaren 13tik otsailaren 10era bitartean.

Bertan hardware librearen kontzeptua azalduko da, eta bere adibiderik argiena erabiltzen irakatsiko da: Arduino plaka, hain zuzen. Horrez gain, hardware librearen inguruan dauden proiektu nagusiak aurkeztuko dira: 3D inprimagailuak adibidez. Bestetik, “Nola sortu irakaslearen PLEa, irakaskuntzarako ingurune pertsonalizatua?” izeneko ikastaroa emango du Amaia Arroyok otsailaren 3an hasita. PLE kontzeptuaren atzean zer ezkututzen den argituko du ikastaroan eta irakasleen jardunean nola aplikatu daitezkeen azalduko du.

# GAIA

## Herrietako kultur ondarea

*Ezagutu, maitatu, bizi*





**Mass medien eraginez, gero eta gehiago dakigu urrutikoari buruz, baina inguratzen gaituenari buruzko transmisioa eten egin da azken hamarkadetan. Ezagutzen ez dena, ulertu eta maitatu ezin denez, berariaz heldu behar zaio transmisio-lanari. Hainbat herritan gertuko kultur ondarea jasotzeko eta ezagutarazteko baliabide pedagogikoak sortu dituzte, eta helburu berarekin, eskola eta herriko eragileak inplikatu dituen bidea proposatu du Iñigo Ramirez de Okariz irakasleak idatzi duen tesiak.**

G

## Kultur ondarea ezagutarazteko proposamenak ugaltzen ari dira

Belaunaldiz belaunaldiko transmisioaren etenak, globalizazio azkarak eta herritarren mugikortasunak nork bere herria garai batean baino gutxiago ezagutzea ekarri du. Gainera, ikastetxe askotan irakasleen joan-etorria handia da, eta zail da tokian-tokiko ondarea ezagutzea.

Ezagutzen ez dena maitatu ezin denez, eten hori josteko, tokian-tokiko kultur ondarea ezagutu eta transmititzeko katebegi gisa, material pedagogikoa sortu dute hainbat herritan, besteak beste, Orereta-Errenterian, Arrasaten, Azpeitian eta Ordizian. Dibulgazioa helburu duten hezkuntza proiektu horiek hizkuntzaren eta kulturaren jabeak bermatzea ere badute xede eta gaitasunak lantzeari garrantzia handia ematen diote.

Aldi berean, Huheziko Iñigo Ramirez de Okariz irakasleak *Gertuko kultura ondarearen transmisioa eta hezkuntza eragileak Lehen Hezkuntzan* izeneko doktorego tesia aurkeztu berri du. Doktorego tesi horrek ere Orereta-Errenterian, Arrasaten nahiz Azpeitian zuten kezka antzeko bati erantzuten dio.

Perez de Okarizek bere tesian nabarmentzen duen eran, etxea izan da historikoki transmisio-gune garrantzitsuena, baina dagoeneko hemen ditugun gizarte aldaketan ondorioz, kultur transmisio arduraren eskola hori eskolaren esku gelditu da neurri handi batean. “Aldaketa soziologiko ikaragarria gertatu da, koiuntura kulturala eta politikoa ikaragarri aldatu da eta mugikortasuna, berriz, handitu”. Egoera horretan, Ramirez de Okarizek ezinbesteko ikusten du hezkuntza prozesua ingurunearekin lotzea ingurua ulertu nahi badugu, gaur egun aldaketak geroz eta bizkorragoak, zabalagoak eta estrukturalagoak baitira.

“Une honetan —dio irakasleak— gehiago dakigu ia-ia kanpokoaz bertakoaz baino, mass medien eraginez. Irakasleak gertuko ezagutzen ez badu, ezingo du ulertu, ez sentsibilizatu, ez maitatu. Ezagutzatik maitatzera doan kate hori, gaur egun, eskolari dagokio, neurri handi batean”.

Turismo kulturala modan jartzeak, alde batetik, eta globalizazioak berak, bestetik, gure identitatea galtzeko arriskuan utzi izanak, Ramirez de Okarizen aburuz, “geurea denaz eta daukagunaz jabetu, zaindu eta mundu guztira zabaltzeko” hainbat egitasmo abian jartzea ekarri du: “Azken urteetan gizarte bere esparru itzetan jasaten ari den aldaketen eraginpean dago hezkuntza ere, eskola. Honen aurrean, noraezaren sentsazioa hautematen da eskoletan, eta hezkuntzaren inguruko diskurtso berri baten beharra ere hauteman daiteke. Eta horren baitan, gertuko kultura ondarearen transmisioari dagokionez, gure identitate hauskorrean barrena osatzen dugun hezkuntza komunitate baten kezka da modu berezi batean hautematen dena. Horri aurre egiteko, erreferente berrien beharretan gaude hausnarketa berriak garatu ahal izateko, estrategia berriak diseinatu eta horrela etorkizuna hobeto bideratu ahal izateko”.

Irakasleak, zehazki, Debagoieneko hainbat hezkuntza eremu aintzat hartuta (formala, ez-formala eta informala), gertuko kultura ondarearen transmisioa zertan den hauteman du, eta horrez gain, gertuko kultura ondarearen sustapena eta hedapenerako ezinbesteko den hezkuntza-eremu eta eragile guztien elkarrekintza, osagarritasuna eta parte-hartzea sustatzeko bideak eskaini ditu tesian. Zehazki, Lehen Hezkuntzako

# Herrietako kultur ondarea

etapan gertuko kultura ondarearen transmisioan hainbat hezkuntza eragileren zeregina ikertu du irakasleak.

## Kultur ondarea, LHko irakaskuntzaren abiapuntuan

Huheziko irakasleak dio kultura ondarea erreminta indartsua eta eraginkorra izan daitekeela Gizarte Zientzien irakaskuntza-ikasketa prozesuan. Aldi berean, irakaslearen aburuz, ingurunea eta bere baitan lantzen dituen proposamena ikasleariaren pentsamendu sozial eta kritikoa eraikitzeke lagungarri izan liteke, baita datuak bilatzeko, ordenatu eta baloratzeko; iragana eta orainaren arteko harremana aurkitzeko; aldaketa eta jarraipen historikoak ulertzeko; gertakarien zergatiak eta ondorioak identifikatzeko; ezagutza historiko eta sozialaren ezagutzak euren errealitatea ezagutzeko eta erabiltzeko; gizartean parte hartu eta kokatzeko, eta kultur ondarea baloratzeko.

Kultur ondarea diotenean, irakasleak ez da ari XIX. mendean ondareaz erabiltzen zen ikuspegi mugatutik, zeinak historiari eta arteari soilik egiten zien erreferentzia. Ondarea eraikitzea sozial bat bezala planteatzen du Ramirez de Okarizek, kontzeptu dinamiko, aldakor, ireki gisa eta, oinordetzatik jasotako jabetza bezala ulertuagatik ere, oinordetza kultura honen transmisioak ez du derrigorrez antzinako ondarearen transmisioa soilik adierazten, dimentsio anitzekoa baita ondarea: materiala, inmateriale (hizkuntza, usadio-ohiturak, sinismenak, toki eta monumentu historikoak...) eta espirituala. Gainera, ondarea hautaketa bezala planteatzen du irakasleak, hau da, kultura on-

dare zehatz batetik jasotako ondasun eta balioen bilduma bat dela onarturik, banako nahiz kolektibitate baten identitatea eraikitzeke faktoretzat hartzen du. Kultura ondarea ingurune natural eta sozial batean gizakiok eragindako prozesu baten emaitza dela onartzen du eta, era berean, hurbileko ingurunearen ikasketa abiapuntu ontzat hartzen du urrutiago dauden beste testuinguru batzuk era errealean eta esanguratsuan ulertzeko. “Kolektibitate edota komunitate kultural bateko identitate propioa adierazten du ondareak”.

Gertuko kultura ondarea, beraz, norberaren identitatea ezagutzen hasteko eta proiektatzeko baliabide paregabea da eskolarentzat, Ramirez de Okarizen aburuz. Identitatea, baina, gizabanakoak era indibidualean eta kolektiboan bere burua onartzen duen erreferente multzo bat bezala ulertzen du irakasleak: “Izan ere, pertsonaren baitan bi identitate mota garatzen direla ikusten dugu. Alde batetik, gizabanakoarena, era intuitiboan eta afektiboan lortzen duguna eta gure ingurune hurbilenarekin harremanak egiten lortzen duguna. Bestetik, identitate kolektiboa, nahiz eta bere osagarriak ere izan, aberasten dena, adibidez, ikasketen bidez, eskolak eman liezaiokeen curriculum tratamendu sistematiko eta espezifikoa- ren bidez”.

## Hezkuntza-sistemaren hastapenetako egitekoa

Hezkuntzak, sistemaren hastapenetatik, berarekin dakarren egitekoa izan da kultur ondarearen transmisioa. Irakasleak gogoratzen duen eran: “Ideologia liberalak, progresis-

tak zein kontserbadoreak, XIX-XX. mendeetan zehar saiatu ziren eurek asmatutako hezkuntza nazionala zabaltzen osatu berriak ziren Europako estatu-nazio moderno guztietako lurraldeetan. Horrela, hezkuntza eta hizkuntza ofiziala izan ziren —monarkia, bandera, himno eta ejertzitoe- rekin batera— estatu berrien sinboloak. Baina baita hezkuntza formal eta arautuaren zabalkuntza, orokortzea eta homogeneizazioa burutzeko ar- dura zeukatenak ere.

Eskolaren kudeaketa eta antolaketa estatuari zegokion jarduera zen. Alegia ‘estatu-nazio’ izaera horren babesleku eta transmisioa bermatuko lukeen lehentasunezko erakundea bihurtu zen hezkuntza-sistema.

Hezkuntza-sistema curriculumaz baliatu zen eta baliatzen da gaur egun ere bere estatu-nazio izaerarekiko ondo atxikitzen den gizarte-ikuspegi sozial, ekonomiko eta kulturala transmititzeko”. Ramirez de Okarizek nabarmentzen du curriculumak ez dela corpus neutroa: “Curriculumak berak egitura sozio-ekonomiko eta kultural bat transmititu nahian, egun tesi kapitalistekin bat datorrena, gizarteak berak dituen gatazka askoren isla ere bada, eta ez maila sozialetik soilik begiratuta, baita gu bezalako herrientzako nazio tratamendu ikuspegitik ere. Horrela, curriculumak identitateen arteko gatazka-gune da, izan ere, batzuek beraien pentsamendu hegemonikoa transmititu nahi izaten dute, identitate nazionala; eta, beste batzuek, berriz, ideologia horri aurre egin nahi diotelako”.

## Sarean lan egiteko premia

Kultur ondarearen transmisioan,

alabaina, ez du eskolak bakarrik egon behar, Ramirez de Okarizen iritziz, eta horixe da, hain zuzen ere, defen- datu duen tesiaren iparrorratza: “Es- kolak ez du bakarrik egin behar bi- dea, baizik eta euren zeregina kultura (gure kasuan, gertuko kultura onda- rea) transmititzea eta eraikitzea duten gertuko erakundeekin elkarlanean aurkitzen da, nahitaez”. Politikari, he- zitzaile, museologo eta herritar orok bultza ditzaketan elkarrekintzek, soi- lik, eragingo dute herrien ondarearen kontserbazioan, irakaslearen arabe- ra, “eta baita hezkuntzaren zerbitzu- rako benetako erreminta boteretsua bihurtzen ere”.

### “Zer eskain diezaioket eskolari bere intereskoa dena?”

Irakaslearen aburuz, eskolak he- rrietako eragileekin nahiz udalarekin sarean lan egin dezan ordua iritsi da. Udal hezkuntza batzordeei egiteko garrantzitsua aitortzen die ikerlariak, “Uste dugu udal hezkuntza batzorde- ak —eta baita udaleko gainontzeko batzordeek ere— hezkuntza komu- nitatearen baitan ezinbestean aintzat hartu behar direla”. Ikerlariaren abu- ruz, udalek lidertza hartu behar dute tokian tokiko hezkuntza proiektuan.

Udalaz eta eskolaz gain, bestelako eragileen artean, berriz, museoek, in- terpretazio-zentroek, natur eta ingu- rugiro eskolek, turismo bulegoek du- ten egitekoa lantzen du bere tesian, baina oso garrantzitsu jotzen ditu kul- tura ondarearen transmisiorako he- rriko musika-taldeak, dantza taldeak, bertso eskolak... eta familiak ere. “Ge- ro eta gehiago atera behar dira hau- rrak eskoletatik —eta ez soilik noiz- behinka egiten den irteerara—”.



Iñigo Ramirez de Okariz Telleria, Huheziko irakaslea.

Ondare-hezkuntzan, hezkuntza ez-formala eragin handia duen ere- mua da. Horregatik, irakaslearen ara- bera, eskolaren eta eremu ez-forma- laren artean koordinazioa landu behar da. Baina tesiak jasotzen due- nez, eremu ez-formaleko ikasketei buruz egindako azken ikerketek dio- tenez, irakasle gutxi batzuek soilik programatzen, planifikatzen eta inte- gratzen dituzte curriculumean esko- laz kanpoko ekintzak.

Horren adibide gisa, museoan eta eskolen arteko harremana aipatzen du, izan ere, tradizionalki bi erakunde horien gain egon da gertuko kultura ondarearen difusioa. Ramirez de Okarizen arabera, bi erakunde ho- rien arteko harremana ez da erraza izan ezta osagarria ere. “Europar (Ita- lia, Erresuma Batua eta Europa ipa- rraldeko beste hainbatetan —Dani-

marka izan daiteke bat—) duela ha- markada dezente ezarri dira ondare- hezkuntzarekin loturiko programak, eta ohikoa da museoak, gune histori- koak eta aztarnategi arkeologikoak zerbait erakargarri eta didaktiko be- zala aurkeztea, araketa eta ikasketa asko egiteko aukera emanez”.

Eskolak ezagutzeko eta ikasteko beste era batzuk arakatu behar ditue- la azaldu du tesian Huheziko irakasle- ak, eta gela edo eskolak kanpoko ira- kaskuntzara ireki behar direla, baina, aldi berean, museoek eta interpreta- zio zentroek “zer eskain diezaioket eskolari bere intereskoa dena?” gal- detu beharko luketeela. “Museok ezinbestean behar dute eskolekin el- karrekintza, museoetan gorde eta ba- besten diren ondare-ondasunak es- kolan ematen den transmisioari esker legitimatzen direlako”.

# Herrietako kultur ondarea

## Ingurunea, irakaskuntza-prozesuko abiapuntu eta xede

Sara Alonsoren hitzak ekarriz, Ramirez de Okarizek kultur ondarearen ikasketekin loturiko hainbat interes-gune nabarmetzen ditu:

1) Ikasketa esanguratsuen lorpena errazten du. Aurreko nahiz ondorengo ikasketekin lotzeko ezagutza egituraren elementuak jartzen ditu.

2) Irakaskuntzarako eragile motibagarria da. Errealitate hurbiletik abiatzen da, non haurrak eragiten eta eragina jasotzen duen. Irakasteko metodo aktiboa errazten du.

3) Diziplinartekotasuna eskatu eta laguntzen du. Gizakiarengan eragina duten egoera geografiko, historiko, ekonomiko, politiko, soziologiko, antropologiko eta kulturalak aztertzea baitakar.

4) Gizarte Zientzietakoak propioak diren prozedurak eta teknikak erabiltzea errazten du, araketa zientifikoare-

kin lotutako metodoen ezagutza erraztuz: Hipotesien aukeraketa eta planteamendua; Tekniken ezagutza eta erabilera; Ideiak kontrastatu; Konklusioak atera.

5) Ikaslearen pertsonalitate-eraketa eta garapen intelektuala sustatzen du.

6) Buru argi eta askeak eratzen laguntzen du. Ikasleak gai direlako inguratzen dutena eta bere ezagutzarako aurkezten zaiena ikasteko.

7) Inguruarengan ikaslearen jarrera, balio eta konpromiso jarrerak sustatzen ditu. Ezagutzen duten errealitate baten jabe izanik, parte-hartzea areagotzen du.

8) Jakin-mina; kreatibitatea; pentsamendu kritikoa; ikerketarako jarrera; besteenganako irekiera; solidaritatea eta kooperazioa sustatzen ditu, eta baita, munduan bizi diren herrialde eta kulturen ezagutza eta ulermena.

## Herriaren berri, modu dibulgatiboan

Orereta-Erreterian eta Arrasaten lehendabizi, eta orain Azpeitian ari dira egiten tokian tokiko ondare kulturala jaso eta ezagutarazteko lana, *bik basi*-ren aholkularitzarekin. Guztiak kezka berberetik abiatzen dira: gero eta globalizatuago dagoen gizarte honetan herri kohesioa bultzatzeko beharrezkoa da herria ezagutzea, bertako kultur ondarea balioestea eta herritarren arteko eta elkarteen arteko ezagutza sustatzea. Hezkuntza proiektu hori unitate didaktiko, gida pedagogiko eta ibilbide didaktikoak osatzen dute. Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduriko lan dibulgatiboa da berez, baina bai Erreterian eta baita Arrasaten ere helduentzako hezkuntzan nahiz euskalduntze-eskolan ere erabiltzen dituzte.

Lehen lana 2008an abiatu zuen

*bik basik*, Erreterian. Hango euskara teknikariak izan ziren *bik basira* etorri zirenak, eta Arantxa Urbe irakasle eta *bik basiko* kide oreretarrak diseinatu eta ondu zuen egitasmoa. Historiaurretik hasi, Neolitikora, Nafarroako Erresumara, industrializaziora, 36ko gerrara eta etorkizunean nahiko luketen herrira arte, historian barrena —eta historiografia ofizialak bazter utzi dituen pasarteak eta pertsonaiak berreskuratuz—, euskara ardatz harturik jaso zuen herriko kultura ondarea Urbek, hiru urteko ikerketa lanaren eta herriko elkarte eta eragileekin hamaika elkarriketa egin ostean. Berdintasun ikuspegiak pisu handia izan du proiektuan eta Urbek lan handia egin zuen historiografia ofizialak ahaztu dituen emakumeak berreskuratzeko, hala nola, Mari Zo-

zaiako, sorgin izateagatik kartzelan hila izan zen herritarra; Joxepa Antoni Aranberri bertsolaria edota Sara Carracel Joko paralinpikoetan aritutako igerilaria nabarmendu zituen. Buruz ikastea ez eta sormena, irudimena, kritikotasuna eta hausnarketa bultzatzen duen pedagogia eredu jarraitu du Urbek Oreretako lana egiteko.

Eredu horretatik abiatu, gauza-tu dute Arrasateko proiektua eta ari dira Azpeitian.

Arrasaten denbora zeramaten herriko kultur ondarea transmititzeko eskolaren egitekoaz hausnartzen. “Egun, teknologia berrien bidez, eskuragarri dugu mundu osoko informazioa. Klik batzuk eginez, gai gara modu birtualean ikusteko urrutiko munduak, baina, aldi berean, sarri konturatzen gara gure herria ezagutu



ere ez dugula egiten. *Herria ezagutzen* egitasmoaren bidez, izan ginenaz, garenaz eta izango garenaz jabetzeko aukera eman nahi dugu”, azaldu du Juanito Barberan Arrasateko hezkuntza teknikariak. Hasiera batean, LHko 3. mailako ikasleei zuzenduriko unitate didaktikoa zuten buruan, eta zirriborro bat ere egin zuten herriko historia eta toponimia jasotzen zuena, baina nahi baino memoristikoa zen lana. Hiki hasi-ren *Herria ezagutzen* egitasmoa ikusirik, eredu horri heldu zioten, eta proiektua 6tik 12 urtera bitarteko haurrei za-

baldu zieten, eta hiki hasi-ren aholkularitzarekin gauzatu dute lana.

Arrasateko historiari buruz material asko zegoen jaso, baina modu pedagogiko eta dibulgatibo batean lantzeko tresna falta zitzaien. Udaleko Hezkuntza Sailaren egitekoa izan zen, bada, herriaren iraganaz eta orainaz dauden liburuak jaso eta hustuketa lana egitea, unitateak diseinatu ahalizateko. “Ikasleengan eta herritarrengan beren herriarekiko interesa sortzea izan da gure helburuetako bat”, adierazi du Barberanek. Santxa eta Martin pertsonaiak dira, izan ere,

Arrasateko historian barnako bidaia hau gidatzen dutenak. Biak ala biak herriko historiako pertsonaia ezagunak dira, Martin Bañez de Artzubiaga oinaztar batzuek hil zuten 1464an, eta haren emazte Santxa Otxoa de Ozaita Marzana berriz, heriotza horrek eragindako minak hil omen zuen, eresi batek dioenez.

Herriko bi ikastetxeetako irakasle talde batek parte hartu dute lanketa osoan zehar. Udalak gidatu du proiektua, lehen unitate didaktikoa bertako Oihana Aranburu zinegotziak egin zuen eta gainontzeko bostak Barberanek berak ondu ditu, eta ikastetxeetako hezitzaileek euren ekarpenak egin dituzte, bai gaiez, bai ariketen ereduaz, egokitasunaz...

Sei unitate didaktikoez eta irakasleentzako gida pedagogikoaz gain, ibilbide didaktikoa prestatu dute Arrasaten. Historiaurrea ezagutzeko ibilbidea, hiribilduarena, auzoetan eskolaren kokapenaren arabera; kultura eta kirol instalazioen arabera; desagerturiko lantegiengingurukoa eta herriko historiako pasarteak ezagutzeko ibilbideak osatu dituzte, eta herriko web gunean daude ikusgai guztiak.

2010ean bi unitate didaktiko egin zituzten, 2011n beste bi, eta 2012an eta 2013an bana. Ikastetxeetan dagoeneko erabiltzen ari dira lehen bost unitateak, eta ikasturte honetan hasi berri dira seigarrenarekin. Ikastetxe bakoitzak erabiltzen du bere hezkuntza proiektuaren barruan nola garatu gaitegi eta ordutegiaren barruan. Ikastetxeek gain, herriko eragileei zabaldu diete materiala. “Herrian ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan nahi dugu”.

## ELKARRIZKETA Olatz ARANGUREN

Olatz Aranguren historialariak dihardu Azpeitiko ondare kulturala biltzen eta jasotzen unitate didaktikoak osatzeko. Dagoeneko bi unitateko koaderno bat argitaratu du.

### **‘Azpeitia ezagutzen’ lanaren lehendabiziko bi unitateen aurkezpena egin duzue. Nolako izan da honaino iristeko prozesua?**

Proiektuaren abiapuntua Azpeitia fundatu zeneko 700. urteurrenean kokatuko nuke. Aitzakiazat urteurren hori hartuta, zenbait historialariri (gehienak NUPEko edo EHUko irakasleak) Azpeitiko historiari buruzko ikerlanak egiteko eta argitaratzeko mandatua luzatu zitzaizkien, Juanra Madariagaren gidaritzapean.

Lan edo liburu horiek argitaratu ondoren, Azpeitiko historiaren inguruko hitzaldi sorta bat ere antolatu zen. Hala ere, liburu edo lan horiek ez ote ziren maila jasoegian geratu zailantza zabaldu zen pixkana zenbaiten artean, herriarentzat urrun geratzen zen jakintza ez ote zen landu.

Hori guztia du abiapuntu *Azpeitia ezagutzen* proiektuak, eta helburu nagusia Azpeitiko eta inguruetako ondare aberatsa interesa duen edozein herritarri iritsaraztea da, indar berezia eginez Lehen Hezkuntzan dau den ikasleen curriculumean integrazteko proiektuan landutako proposamen pedagogikoak.

Nire lanak hainbat zati izan ditu. Hasteko, beste herri batzuetan egin

## “Herri osoarentzat da garrantzitsua herriko ondarearen berri izatea”

diren antzeko proiektuak begiratzea izan da abiapuntua. Horretan, lagungarri izan zait duela zenbait urte Erreterian egindako lana. Eredua ikusita, gaiaren inguruan zeuden hainbat ikerketa kontsultatzea izan da hurrengo lana: herriko eta bestelako historialarien lanak irakurri, oharrak jaso, herriko elkarteekin bildu, proiektua aurkeztu, behar izan dudanean laguntza eskatu... Horren ondoren, Hezitzaileen Gida eta Ikasleen Lan Koadernoak osatzea izan da zeregin nagusia eta potoloena. Horiek egituratu eta gero, ikastetxeekin ariketen eta informazioaren egokitasuna kontrastatzeko prozesua hasi zen.

Aldi berean, marrazkilariarekin harremanetan jarri ginen, eta, astean behin, koordinazio-bilerak egin genituen. Azken fasea lana maketatu behar zutenekin izan da (Eregi du izena enpresak). Horiekin ere izan dira koordinazio-bilerak batzuk.

Orokorrean, lan handia izan da, baina uste dut aberasgarria izan dela sortze-prozesuan parte hartu dugun guztiontzat; gainera, ikastetxeetan aurrean lantzen hastekoak direnez, prozesua ez dago itxita, eta horrek aberaste-prozesu hori areagotu egingo du.

### **Zer garrantzi du zure ustez haurrek herriko ondarearen berri izateak?**

Ezinbestekoa da gure iritziz. Txiki-txikitatik, bizi garen ingurunearekin loturak edo harremanak eraiki-

tzen joaten gara. Lotura edo harreman horiek ezagutzatik eta estimutik landuz gero, gizarte osoarentzat aberasgarria den prozesua jartzen da abian. Haurrak bere ingurunea ezagutzen eta maitatzen ikasten du, hauraren izaeraren zati bihurtuko da luzera. Herri osoarentzat da garrantzitsua herriaren dugun ondarearen berri izatea, nor garen jakitea.

### **Herriko hiru ikastetxeek eta beste hainbat eragilek parte hartu dute lanean, ezta?**

Lanean parte hartu duten eragileak ugari izan dira. Hasiere-hasieratik agertu dira laguntzeko prest, eta eskertzekoa da izan duten jarrera. Hasteko, indar berezia izan du Azpeitiko Udaleko Hezkuntza Batzordeak, batzorde hori izan baita proiektua abian jarri duena eta prozesuak iraun bitartean ondoan izan dudana. Eragileen artean, aipatzekoak dira, besteak beste, Antxieta Arkeologia Taldea, Muni-be Arkeologia Taldea (Azkoitia), Ingurugiro Fundazioa, Azpeitiko Argazkilari Elkarteak, Iraurgi Lantzen... Beharren arabera jarri gara beraiekin harremanetan, eta, behar izan dugunean, beti agertu dira ahal dutenean laguntzeko prest.

### **Zer garrantzi dauka talde-lanean egindako proiektua izateak?**

Talde-lanean osatutako proiektua izatean, bakoitzak proiektua bere sentitzen duela esango nuke, batetik.





'Azpeitia ezagutzen' lehen koadernoaren aurkezpena. Mahaian, ezkerretan, Olatz Aranguren egilea.

Bestetik, herriko ikastetxeak eta hainbat talde proiektuaren zati bihurtzen badira, proiektua bera indar handiagoz ateratzen da, hala iruditzen zait; herriko hainbat eragile opil eder bati forma ematen ari izan balira bezala.

### **Azpeitiko ondareari dagokionez, zer zegoen bilduta, eta bilketa horretatik zer eta nola jarri duzu haurrentzat?**

Lehen lan-koaderno honetan, Historiaurretik hasi eta Erdi Arorainoko epea lantzen da. Azpeitiko ondareari buruz ez dago ezer handirik idatzita ia Erdi Aroraino. Beraz, inguruetako aztarnategietako eta herrietako lanak erabili ditugu. Nahiago izan dugu hutsuneak zizutzen garaiak inguruetako lekuen informazioarekin bete. Kontuan izan behar da Azpeitia ez dela hiribildu banandu izan XIV. mende aldera arte eta bailara modura funtzionatuko zuela inguruak ordura arte gutxienez. Lana zehazterako orduan ere hori kontuan hartzea interesgarria iruditu zaigu.

Niretzat erronka izan da informazio hori haurrentzat jartzea. Ni Historian lizentziatua naiz izatez, eta Bigarren Hezkuntzako irakaslea; beldur ematen zidan gaian ez ote nintzen gehiegi korapilatuko; saiatu naiz landu beharreko adin-tartera ongi egoki-

tzen. Hala ere, lan honetan, ezinbestekoa izan da ikastetxeen partaidetza. Haiiek esan izan didate: "Ariketa hau zailtxoa da", edo "Ariketa hau oso egokia da". Eskerrak hor izan diren!

### **Nola esplikatu diezue ondare guztia haurrei?**

Gure helburua ez da ondare guztia haurrei azaltzea. Lan Koaderno Hezitzaileen Gidarekin batera doa, eta gida horretan ematen dugu informazio osatuagoa, nahi duen guztia haurrentzat (irakasleak, gurasoak, Azpeitiko gertaeren inguruan interesa duen oro...). Askotan, haurrak bete egiten ditugu informazioa sartu behar diren beharraz, eta guk nahiago izan dugu, Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetan behintzat, gauzak lasai eta gustuz landu. Gehiago jakin edo landu nahi duenak aski du gidan begiratzea ([www.azpeitia.net](http://www.azpeitia.net) helbidetan daude eskuragai ikasleentzat Lan Koaderno eta Hezitzaileen Gida).

### **Nola egin duzu edukien banaketa atalik atal?**

Edukien banaketa egiteko, Historia egituratzeko erabiltzen den ardatz kronologikoa hartu dut erreferentziatzat. Lehenengo bi unitate hauetan,

aro zaharretatik berriagoetara antolatuta ditugu atalak. Irakasleek esan digutenez, lagungarria izaten da horrela antolatzea ikasleentzat, buruan historiako aldiak egituratzeko lagungarria zaielako.

Argitaratu dugun lehen koaderno horren barruan, bi unitate didaktiko bereizten dira: Nondik gatoz? eta Nola sortu ginen? Lehendabiziko unitatea inguruko lehen bizi-aztarnetatik hasi (fossilak) eta erromatar garaira arte hedatzen da. Bigarren unitatea hiribilduaren sorrerarekin hasten da, eta Erdi Aroaren ia amaiera arte luzatzen da. Lehen unitatea LHko 1. mailan lantzeko pentsatuta dago, eta 2. unitatea, berriz, LHko 2. mailan.

### **Zer lan gelditzen zaizue egiteko aurrera begira?**

Aurrera begira, datorren ikasturte-hasierarako beste bi lan-koaderno ateratzea dago pentsatuta. Erdi Aro bukaeratik gaur egunera arteko Historiako tarte landuko da batetik, baina ez dugu horretan bakarrik zentratu nahi. Aro berriagoetara gerturatu ahal, informazio gehiago jaso daiteke herritarren ohitura, pasadizo, xelebrekeria, bizimodu eta abarri buruz.

Ondarea herrian oraindik ere biziirik dugun aberastasuna dela uste dugu. Azpeitia herri euskalduna da, eta oraindik ere kalean gelditu eta istorio ederren bat kontatzeko gogoz gerturatzeko zaizun jendea bilatzea ez da zaila. Guk, gure proiektuarekin, antzeko zeregina bete nahi dugu, belarriak adi gerturatzeko den edonori gaur egungo herrian biziirik diren edo duela zenbait urtera arte biziirik iraun duten altxor txikien eta ez hain txikien berri ematea.

# hur gorostiaga



## ELKARRIZKETA

Seaskako zuzendaria

“Napoleonen azken arrastoak erabiltzen ari da Estatua ikastolen aurka egiteko ”

**Bost urte daramatza Hur Gorostiagak Seaskako zuzendari lanetan. Eta aurtengoa ari da izaten urterik gogorrena, Frantziako Estatuak jopuntuan jarri baititu ikastolak 1850eko Falloux legea kaxoitik aterata. Hori gutxi balitz bezala, itzuli beharreko kredituak gero eta potologoak dira... baina Hur Gorostiagak baikor, animoz eta irribarretsu jarraitzen du lanean, aurrera, urterik urte gero eta haur gehiago matrikulatzen baitira Iparraldeko ikastoletan, eta horrek esperantza ematen baitio euskararen garapenari.**



**Seaskako zuzendaritza hartu zenuenean barealdi-garaia izango zela aurreikusten zenuen. Orain ordea, Paxkal Indo Seaskako lehendakariak esan berri du ikastolen egituretan daramatzen 15 urteetan ikasturterik zailena bizi izan duela. Zergatik jarri ditu Frantziako Estatuak ikastolak jopuntuan 1850eko Falloux legearekin?**

Duela urte batzuk, bazirudien normalizazio-prozesu baterantz gindoa-zela, baina azken urtean Frantziako Estatuak gauza batekin konturatu da, ikastolen hazkundea ikaragarria dela. Azken bederlatzi urtetan % 60ko hazkunde bat izan dugu ikastolok, eta gero eta haur gutiago sortzen den garai honetan gure ikasle kopurua gora eta gora doa, aldiz, eskola publikoan eta pribatuetan gero eta haur gutiago dituzte. Badirudi egoera hori ikusirik, kezkatzen hasi dira gure garapenaren aitzinean.

Estatuak aitzakia bat bilatu du ikastolen kontra jotzeko. Hendaiaiko ikastolaren arazoa aitzakia bat besterik ez da izan. Hendaian baditugu 250 ikasle, horietatik 80rentzat ez dugu tokirik Hendaiaiko ikastolan, beraz, ikastola berri bat eraiki behar genuen, eta udaletxeak gehiengoz erabaki zuen ikastola berri bat eraikitzea eta gero gure esku uztea. Orain Estatuak esan du hori legeaz kanpokoa dela, eta 1850eko Falloux legea atera digu eta auzitara eraman du gaia. Auzitegiko epaileak erabaki bitartean, blokeaturik dauka Hendaiaiko udaletxearen erabakia, beraz, Hendaiaiko ikastola berria blokeatua dago. Eta laster Beskoitzeko ikastola ere ezarriko du auzitan Falloux legea-

ren harira. Beskoitzen lur bat alokairuan ezarri nahi zigun udalak ikastola bertan ezartzeko, baina Estatuak horren aurka egingen du, nahiz eta hor Falloux legeak ez duen zerikusirik, hori merkatuaren legea baita.

**Ze berez, Beskoitzeko udalak edozeini aloka diezaioke lurra, ezta?**

Salbu ikastola bati. Eurek defendatzen duten merkatuaren kontrako erabaki bat litzateke, eta badirudi auzitara eramango duela Estatuak. Gu saiatuko gara defendatzen, nahiz eta legeak eurek egiten dituzten eta auzitegiak eurenak diren. Eskandalu handi bat da Estatuak ikastolen aurka egiten ari dena, eta, gainera, guri laguntzeagatik udalak eta beste mehatxatzen ari dira. Napoleonen azken arrastoak erabiltzen ari da Estatuak ikastolen aurka egiteko, prefeta eta suprefeta Napoleonek sortu zituen figura batzuk baitira herria kontrolatzeko, eta guk bizi dugun egoera erabat hori da: mehatxatu egiten gaituzte, ekonomikoki itozteko mehatxua egiten baitiete Udalei: Udalek erosketan aurreratzen dute BEZa eta gero estatuak itzuli egiten diete, baina, oraingo honetan, BEZa ez dutela berreskuratuko mehatxatzen ari dira.

**Baina berez, Falloux legea ikastetxe pribatuak babesteko lege bat zen, ezta?**

Falloux legea 1850eko legea da, artean ez zegoen Estatuako eskola garaia, beraz, eskolak pribatuak ziren garaia da. Eskola pribatuak babesteko lege bat izan zen, estatuak ez zedin etorri eskola pribatuen ondarea kentzera. Eskola kristauak babesteko lege hori erabiltzen dute guri finantzazioa ukatzeko. Beraz, erabateko kontraesana da, baina horrela aplikatzen dute. 1969an sortu zen Seaska, eta betidanik izan ditugu laguntza publikoak, sekula ez Estatuak emanak baina bai udalek emanak, eta orain handitzen ari garenean mehatxuekin hasi dira.

Ez da Estatuaren kontraesan bakarra. Hollandekin sozialistak Gobernura iritsi zirenean, eurokarta berretsiko

# hur gorostiaga

E

“**Estatuari ikastola gustatzen zaio sinbolikoa den neurrian, sinbolikoa izateari uzten dionean arazo gisa ikusten du**”

“**Gaur egun hiltzen direnen % 60-67 euskaldunak dira Ipar Euskal Herrian; aldiz, sortzen direnen artean, guk eskolatzen ditugunak eta pixka bat gehiago izango dira euskaldunak, % 10-15**”

zutela erran zuten, hizkuntzen lege bat egingo zutela, eta horretarik ez dugu deus ikusi, eta aldiz atzera egin dute 40 urte, debekatuz ikastolak. Galarazi nahi dute ikastolen garapena, ez dute begiratu orain arteko ikastolak legezkoak diren ala ez, beste aldera begiratu dute, baina orain aurrez aurre jarri zaizkigu, eta hemendik aurrera begiratuko dute. Baina Hendaiaiko eta Beskoitze-ko ikastolak legez kanpokoak baldin badira, gure ikastola ia denak legez kanpokoak izan daitezkeela gertatzen da. Estatuari ikastola gustatzen zaio sinbolikoa den neurrian, sinbolikoa izateari uzten dionean arazo gisa ikusten du. Zer esan nahi du horrek? Haurren % 10etik gora eskolatzen hasi garenean mehatxuekin hasi direla. 2 eta 3 urteko haurren artean dagoeneko % 16 eskolatzen dugu, orain arte beti egon gara % 10etik behera, beraz, ez zegoen kezkarik; Eskola publikoak egingo du haurren % 60ko eskolaztea eta eskola pribatuak %25 edo pixka bat gehiago. Oso epe motzean asko handitzen ari gara eta horrek beldurtzen ditu.

**Eurokarta aipatu duzu. Frantziak onartzen du haurrek eskubidea dutela euren ama hizkuntzan ikasteko, aitortzen baitu Unescoren nazioarteko itunek diotena, baina Frantziako Estatuak ez du betetzen hitzarmen hori administratiboki bere dituen lurraldeetan. Hala salatu zenuten zuek Unescoren bertan.**

Unescoko agerraldia oso polita izan zen. Frantzia lezioak ematen ari zen beste estatuei, esanaz Afrikakoei eurak ez direla demokrazia, minoritateak zarpaltzen dituztela, minoritateen eskubideak ez dituztela onartzen... Eta bukaeran gu agertu ginen esanaz besteei leporatzen diozuna zuhaurek ez duzula betetzen. Afrikako herrialde batzuek irribarre bat agertu zuten.

**Azaroan izan zineten Unescoren, orain zertan geldituko da agerraldi hura?**

Salaketa formal bat egin behar dugu. Unescoko zuzenbide-arduradunek badakite lege gogorrak eta lege arinak daudela, eta Unescokoak hitzar-

menak dira, sinbolismo handikoak bai baina ez du auzitegi batek kondentatzen ahal Frantzia hitzarmen bat ez betetzeagatik. Baina ari gara aztertzen Europa mailan beste bide batzuk Frantzian jarrera salatzeke. Baina badakizu, Frantzia inperio handi bat da.

**Sarkozyk hezkuntzan egin zituen erreformen eta murrizketen ondoren, Hollandek hezkuntza gaitara berrikuntza ekarriko zuela uste genuen... Aldiz, zuk diozu Frantziako Estatuak azken 50 urteetako makilkadarik gogorrena eman diola Ipar Euskal Herriari.**

Gobernura iritsi aitzin, bere diskurtsoan dena baikorra zen hezkuntza eta hizkuntza gaitetan, baina gertaerek erakusten dute bere hitza jan duela. Eta orain ari gara berriz ere Estatuko beste herriekin lanean Hollandek hitza bete dezan.

Hemen, Seaskan, heldu den ikasurtea prestatzen ari gara eta gure asmoa da gure atea joko duten ikasle guztiak errezipitza. Argi eta garbi, ikasle bati atea ixtea erraz ez dagoela lekurik beretzat, edo ez dugula laguntzarik ikasle hori eskolatzeko, ikasle hori frantses izatera kondentatzea da. Gaur egun Ipar Euskal Herrian D eredu ematen duen bakarra ikastola da, ez dago besterik, beraz, euskaldun izatea nahi badugu haur horrek ikastolatik pasa beharko du, bereziki familia frantsesetik heldu baldin bada. Gure atea lehen bezainbat edo gehiago zabaltzen ditugu, gure hizkuntza salbatzeke bide bakarra ikastola baita.

**Ipar Euskal Herrian euskara ofiziala ez den neurrian, ez dago euskalduntzeko inolako egitasmorik. Zuen bizkar dago euskalduntze-lana, beraz?**

Une honetan, ikusten baldin baditugu datuak, gaur egun hiltzen direnen % 60-70 euskaldunak dira Ipar Euskal Herrian; aldiz, sortzen direnen artean guk eskolatzen ditugunak eta pixka bat gehiago izango dira euskaldunak, % 10-15, beraz hor galera izugarria dago. Hortaz aparte, badugu sekulako immi-

grazioa Frantziatik, aberatsen immigrazioa, hemen bigarren etxaldeak eraikitzeko lurak erosten dituztenak. Ipar Euskal Herrian 300.000 biztanle baldin badaude, gaur egun erdiak Ipar Euskal Herriatik kanpo sortutakoak dira. Palestinan bageunde kolonizazioaz edo asentamenduetaz hitz egingo genuke, baina hemen, Frantzia demokrazia handi bat denez, ez dago koloniarik ez asentamendurik, baina berez hori da gertatzen ari dena.

Ez dago inolako plangintzarik Ipar Euskal Herria euskalduntzeko, ez dugu, ezta ere, inolako instituziorik ez hizkuntza plangintzarik edo kultur plangintzarik ezarriko duena. Hemen Parisetik pertsona bat etortzen da erretreta harturik bigarren etxea hemen erosi eta ez du ez euskara ez euskal kultura aditzen... Hori da gure errealitatea. Hori da gure drama: ikastolara ez datorren haurra euskarak galdu duen haurra da, eta, gainera, sekula ez du ikasiko, salbu bi gurasoak euskaldunak baldin badira, agian hor aukeraren bat eduki dezake.

**Batera plataformak deituta, Mauleko manifestazioan izan zen azaroan Seaska. Orduan zenioten Frantziaren mehatxua ez dela bakarrik ikastolen kontra; egituratu nahi den gorputz baten kontrako erasoa antzematen duzue Parisetik?**

Parisetik ikusita, haien interesa zein da? Ipar euskal herritarrek diluitzea Estatuako egitura horretan. Ez hizkuntzari onarpenik eman, ez lurralde ezagupe-rik eman, eta desegin dadila poliki-poliki. Eta ikusten dute, urtez urte, gero eta jende gutiago dela euskaraz mintzatzen dena, biztanleriaren datuetan ikusten da adinekoen artean %60ak egiten duela euskaraz, eta adinean behera joanaz, gero eta gutiago. Baina azken urteetan lortu da berriz gorako bilakaera bat, eta hori da gure garapenaren ondorio. Parisen helburua zein da? Garapen hori etetea eta hiltzen uztea da.

Frantziaren jokatzeko moldea da beti itxurak mantentzea. Adibide bat jarriko dizut: joan den uztailan alderdi sozialistaren bulegoak okupatu geni-



tuen; hori Hegoaldean gertatu izan baltiz, ordu erdiren buruan bidaliak zituzten guardia zibilak, Polizia Nazionale eta Ertzaintza eta denok kanpoan ginen; hemen askoz ere inteligenteagoak dira, edo maltzurragoak. Utzi gintuzten hiru-lau egunez hor barruan, eta gero eskaini ziguten bilkura bat handik ateratzeko, itxurak mantentzen dituzte beti, baina gero errealitatean ikusten da hiltzen utzi nahi gaituztela.

**Baina hautetsi sozialistek eurek ere aldarrikatzen dute euren herrietan ikastola bat egon dadin.**

Hemen, ikastolak eduki dituzten udal gehienek legez kanpo babestu

dituzte ikastolak, utzi dute lokal bat jakinez Falloux legeak debekatzen zuela, orduan diskretuki Estatuaren jarrerari enfrentatu zaizkio, orain behar da urrats bat gehiago eman, Estatuak mehatxatzen gaituenean publikoki urrats bat egin behar da, baina oso zaila da. Gurea gainera, hezkuntza da, gure lana izan behar da datorren ikasturtea ahal bezain ongi prestatzea eta behar ditugun erakasleak lortzea. Ze, azken finean, gure haurren hezkuntzaz ari gara, eta gure lehentasuna izango da ditugun ikastola guztiak mantentzea eta, ahal dugun neurrian, berriak irekitzea...

**“ Hizkuntza eta hezkuntza gaitan Barne Ministerioa da Frantzian agintzen duena ”**

**“ Kondenatuak gaude, nolazbait, besteak baino hobeak izatera, eta sormenari eragin behar diogu aitzina egiteko ”**

**Baina, higadura horrek, hezkuntza proiektuaz arduratu beharrean, beste egiteko batzuetan indarrak xahutzea dakarkizue, ezta?**

Horretara bultzatu nahi gaituzte. Hizkuntza Politikaren motor nagusia Seaska da. Zorionez, lehentasuna hala ere hezkuntzari ematen diogu. Iaz Baxoa egin zuten ikasleen %100ek lortu zuten Baxoa, eta Estatu mailan 6.000 lizeo baldin badaude, gure lizeoa lehen 40etan kokatzen da emaitzetan. Beraz, hor ikusten da horrek ere min egingo dietela, balio erantsi bat ematen dio gure hezkuntzari. Gure ikasleek, pozik joateaz gain, akademikoki emaitza onak lortzen dituzte, eta frantsesean ere besteek baino emaitza hobeak ateratzen dituzte.

Hezkuntzaz eta hizkuntzaz ari gara, baina hemen herri gisa ere mehatxu bat dago... Hegoaldean eztabaida dago LOMCerekin edukien %60 inposatuko duelako Madrilek, hemen berriz, edukien %100 Parisetik inposatzen zaigu, Parisek finkatzen du programa eta estatu guztirako berdina da. Orduan hemen irakasleek lan bikoitz bat dute egiteko, historian *Marseillesa*-ren historia sartzan baldin bada, hori aztertuko dugu, baina ondoan ere esplikatuko dugu ikurrina nola sortu zen.

**Akademikoa alde batetik, eta euskal curriculumarentzat beste denbora bat eskaini behar duzue?**

Horrek erran nahi du denbora bikoitzen dela, alde batetik programa ofiziala bete behar da, baina bestetik inguratzan gaituen lur honen berezitasun bat ikasi behar dugu.

Ezin dira konparatu Hegoaldeko egoera eta hemengoa. Hainbat hobe Hegoaldean hezkuntza lege bat egiten baldin bada hiru erkidego eta Nafarroarentzat, baina gu egoera arrunt kaskarrean gaude. Hemen legeak Parisen bakarrik egiten dira, ez Akitanian ez Pauen. Parisekoak dira lege bakarrak, estatu hipentralizatu batean gaude.

**Eta are gutxiago Ipar Euskal Herrian.**

Ipar Euskal Herria ez da existitzen,

karta postal bat besterik ez da.

**Eta barnealdean ze egoera dago?**

Egoera zaila da. Xiberoan 15.000 biztanle daude probintzia osoan. Pentsa, Hegoaldeko edozein herri baino txikiagoa da Xiberoa osoa. Horrek sortzen dituen arazoak handiak dira: gizartea zahartzen ari da; enplegua, kasurik hoberenean, kostaldean dago, edo bestela Parisera joan behar da; unibertsitate aldetik ere antena bat besterik ez dugu; urtero milaka ikasle dira kanpora, Bordelera edo Tolosara edo Parisera joan beharra izaten dutenak. Guk baditugu ikasleak EHU nikasi nahi dutenak, baina hor ere legeak lege, Sevillako batek lehentasuna edukiko du Donostia-ko campusean sartzeko Hendaia-ko batek baino, beraz, hor ere kontraesanak. Unibertsitate autonomo bat edo berezkoa eta tokikoa izango litzatekeena, eta euskarari ere toki egingo liokeena aldarrikatzen dugu. Hori gure ametsen parte da.

**Ipar Katalunia, Kortsika, Altsazia, Britainia, Okzitania ere Frantziako administraziopean daude. Haien egoera nolakoa da?**

Lehen ikastolak hemen 1969an sortu ziren. Ondoren, Ipar Katalunian eta Britainian sortu ziren hemengo ereduak segituz, pixka bat beranduago Okzitanian eta orain Altsazian ari dira. Kortsikan ez daukate ikastolarik. Eta, gainera, tematuta daude eskola publikoaren barruan sartzera, baina ari dira ohartzen frantses administrazioaren azpian daudela, eta hor Kortsikaren izateari leku egitea ezinezkoa dela. Orain badago proiektu bat eta gu ere han izan ginen geure proiektuaren berri emateko. Baina egia da, baita ere, hizkuntzaren gaia erabat alboratua izan dutela euren borroketan, eta orain sortu dira hizkuntzaren alde egiteko kolektibo batzuk.

Sare bat sortua dugu elkarrekin lan egiteko eta Paxkal Indo Seaskako lehendakaria, sare horretako lehendakaria ere bada. Gu ari gara hori bultzatzen, eta baditugu arazoak, inbertsioen arazoak, edo laguntzak denoi eragiten di-

gutenak. Hegoaldean kontzertazioak daude, baina hemen ez dago horrelakorik. Lehen Hezkuntzan udalari dago-ko ordaintzea, baina udalak ordainduko du bere herriko ikasleentzat, baina, adibidez, Ortzazeko ikastolan diren 100 ikasleetatik 30 bat izango dira Ortzazekoak, eta beste guztiak inguruko herrietakoak dira, horrek erran nahi du inguruko herriak ez daudela behartuak diruz laguntzera. Beraz, hortan ere badugu arazo bat. Eta kontzertaziorik ez dagoenez, irakasleak Parisen kontrataziopean daude, eta irakasleak lortzeko Parisera jo behar dugu. Erabat zentralizatua dagoen egitura da Frantziakoa, hori da daukagun zailtasuna.

**Barne ministroak erabakia du Kortsikan kortsikera ez dela ofiziala izango, beraz, hizkuntza gaietan agintzen duen barne ministro bat daukazu...**

Hori ere logika ezaren erakusle da. Gu uztailean izan ginen Parisen bilkura

batean eta norekin bilduko eta Kultura ministroarekin, hezkuntza ministroarekin eta barne ministroarekin. Inork ez digu esplikatu barne ministroak zer egiten duen hor, baina betidanik horrela izan da. Eta biziki ongi oharu ginen hizkuntza eta hezkuntza gaietan Barne Ministerioa dela Frantzian agintzen duena, besteek men egin besterik ez dutela egiten.

**Hegoaldeari begira, Jaurlaritzarekiko biderik ireki da? Patxi Lopez lehendakari ohia agindu zizuena eman gabe joan zen.**

Jaurlaritzak azken urtean zeuden bideak itxi ditu, krisia dela-eta momentuz ez gaituzte laguntzen ahal, eta eskerak Gipuzkoako Diputazioak ahalegin berezia egin duen Xalbador proiektua laguntzeko, eta gu hor ari gara oraindik ate joka Jaurlaritzan.

**Beti ari gara ekonomiaz, legeez... zein dira Seaskaren hezkuntza-proiektuaren**

**lehentasunak?**

Hemen ondoan, Xalbadorren, azken urteetan esperimentazio bat jarri dute martxan Euskal Herri mailan ikastolen mugimenduan aipatu izan dena. Interdiziplinaritatea ezarri dute DBH mailan, horrek erran nahi du irakasle bat ez dela soilik bere irakasgaiaz arduratzen, baizik eta diziplinartekotasun bat martxan ezartzen dela, eta egun batzuk ezartzen dira mailak trukatzuz. Hori Lehen Hezkuntzan asko egiten da, eta Bigarren Hezkuntzan ez hainbeste. Esperimentazio horrek lan handia eskatzen die talde pedagogikoari eta irakasleei, baina horretan ere esperimentatzen ari gara. Kondenatuak gaude, nolazbait, besteak baino hobeak izatera, eta sormenari eragin behar diogu aitzina egiteko.

Frogatzen da argi eta garbi ikastolen arrakasta proiektu pedagogikotik datorrela. Horrez gain, gurasoek haurrak sartzten dituztenean ikastolan, badakite



# hur gorostiaga

E

**“Ezin dugu atzera egin, esperantza bat baldin badago gure hizkuntza salbatzeko hori ikastoletan dago, beraz, lan egingo dugu gure hizkuntza garatzeko”**

**“Ahuldadetik indarguneak atera ditugu. Haurrek eurek ikusten dute gurasoak hemen ari direla lanean, eta ikastola beraiena bezala sentitzen dute”**

Herri Urratsen lan egin beharko dutela, Seaskako egutegiak saldu, Herri Urratsen zozketa, bi asteburitik behin euskal biskotxa egin beharko dute... horrelako dinamika batean sartu beharko dira. Garbiketa egiteko ere, askotan gurasoak eurak antolatzen dira garbiketa egin eta dirua aurrezteko.

## **Non ikusten dituzue aurrera egiteko heldulekuak?**

Leku guztietan. Beti duda sortzen da, ikastola bat sortuko dugu? Gela berri bat irekiko dugu? Dirurik ez dugu, baina ireki dezagun, eta aurkituko dugu dirua edo laguntza edo dena delakoa. Xalbadorreko proiektua horrela egin zen: berritu dugu kolegioa eta Gipuzkoako Diputazioak lagundu gaitu, Irizar autobus enpresak ere laguntza ekarri digu, hainbat jende ere bere laguntza eman du... Orain zorpetuta gaudela hainbat krediturekin baina aurrera egingo dugu. Ezin dugu atzera egin, esperantza bat baldin badago gure hizkuntza salbatzeko hori ikastoletan dago, beraz, lan egingo dugu gure hizkuntza garatzeko. Lanean ari gara kristau eskolekin eta eskola publikoko guraso elkarteekin ere, beraiek ere inmersioa garatu dezaten eskola horietan, bai baitakigu gu bakarrik ez garela iristen.

## **Eta ikastetxe elebidun horietan euskalduntzen dira haurrak?**

Ez. B edo A ereduak egiten dute, eta hurbilpen bat dute hizkuntzarekiko. Ikastolok laguntzen ari gara eskola publikoak eta pribatuak estatuak bertan egin dituzan esperimenduak, euskaldundu daitezten haurrak. Baina murgiltzea erabat beharrezkoa da, Hegoaldean ere argi ikusten da D ereduak dela beharrezkoa haurrak euskalduntzeko.

## **Hegoaldean euskararen erabilerarekin arazo handia dago. Hemen?**

Biderhamar. Ikastoletan ere ari gara Euskaraz Bizi programa aurrera eramaten. Baina zaila da. Ingurune guztia frantsesa denean zaila da haurrei erriate euskara ez dela bakarrik gela barneko hizkuntza, baizik gelaz kanpokoa

ere badela eta zergatik ez ikastolaz kanpokoa! Hori dena ikasleekin, irakasleekin eta gurasoekin egin behar den lan handi bat da. Eta ez da erraza, ze guraso batzuk etortzen dira haurrak hizkuntza bat gehiago jakin dezan, ingelesa balitz edo txinera balitz berdin. Kultur atxikimendurik gabe, eta hori ere lantzen joan behar da.

## **Zuek ikastolatan dauden umeen guraso asko frantses hiztunak izango dira, ezta? Horiek erakartzeko, beraz, ez da aski izango euskaltzetasuna.**

Garai batean ez baina gaur egun bai, LHn eta ama ikastolan gehiengoa frantses hiztuna da. Proiektu pedagogikoak erakarri behar ditu. Ze guraso batek haurra hemen ezartzen duenean, badaki oso ondo ez duela haurra uzten eta gero biltzen, baizik eta haurrarekin sartzen dela ikastolan eta tokatuko zaiola proiektu pedagogikoan inplikatzeari, bai talo-salmentan edo biskotx-salmentan aritzea astebururo edo bi asteburuz behin, eta hori guztiek onartzen dute. Beharrak sortzen du bizi giro bat ere. Zer erremedio! Ahuldadetik indarguneak atera ditugu. Haurrek eurek ikusten dute gurasoak hemen ari direla lanean, eta ikastola beraiena bezala sentitzen dute, eta horrek baditu bere alde onak eta baita txarrak ere. Familia handi bat bezala gara.

## **Familia horren erakusle da Seaskaren lagunak elkarteak, ikasle ohiek sortu berria?**

Ikasle ohiek euren haurrak ikastolan ezartzen dituzte, normala denez, baina badago 18 urtetik 30 urtera bitarteko hainbat jende, oraindik ez dena guraso, eta horiek hasi ziren mugitzen. Eta badira horiez gain, lehen guraso zirenak eta orain aitaxi amatxi direnak eta lagundu nahiko luketen ikastolen proiektua. Eta jende hori biltzen ari gara, batetik dinamika bat sortzeko, bizi osoa ikastolan egin ondoren, harreman hori ez hausteko; eta nolabait ere izan daitezten euskararen eragile. Hori dena lotzen da, eta ondoren proiektu batzuk eta diru laguntza batzuk aurrera eramaten badira, hainbat hobe.



# zientziaazoka

galdetu.ikertu.lortu

elhuyar da

2013-2014



Zientzia Azokan parte hartuz gero:

- Ikerketan eta proiektu teknologikoetan jardungo dira gazteak
- Tokian egiten den ikerketaren berri izango dute, gertu-gertutik
- Gazteen arteko esperientzia-trukeak biziko dituzte
- Ikertzaileen lana lehen eskutik ezaigutu ahal izango dute
- Kanpoko beste esperientzia batzuetan ere parte hartzeko aukera izango dute

Ikertzaile profesionalen aholkuarekin!

Zientzia Azoka ekimena gazteek garatutako proiektuen azoka da, ikasturtean zehar, taldeak, gazteak erabakitzen duten gaiaren inguruan artitako dira lanean: galdetzen, ikertzen, diseinatzen, erakitzen, eta esperientzia berriak bizitzen.

Bidean, ikertzaile profesionalen laguntza jasotzeko aukera izango dute, abenturak eta bizipenak konpartitzeko, eta gazteen lana bideratzen laguntzeko.

Antolatzailea:

elhuyar  
Zientzia

Kolaboratzaileak:

Universidad del País Vasco  
Caral marta Leizola

upna  
Unibertsitatearen  
Partekatuak

Deusto  
Instituto de Investigaciones  
Biomédicas y Clínicas

CONSEJO REGULADOR  
MATERIA DE  
PROTECCIÓN DE  
DATOS  
M  
MONDRAGON  
LABORATORIA

tecnalia  
Innovación. Tecnología. Negocio.

IK4  
Instituto Tecnológico y de Investigación  
BTE4  
Instituto Tecnológico y de Investigación

Babelea:



Laguntzaileak:

Donostiako AquarLuma, Gaztezulo,  
Gipuzkoako parketxeak, Karpin Abentura,  
Skunkfunk, Sobrón Aventura.



Kontaktua:

zientzia-azoka.elhuyar.org  
zientzia-azoka@elhuyar.com  
@ZTgela • 943 36 30 40



# 0-3. Hezitzaileen formazioa

## Motrizitate globalaren garapena

### “Gure lanaren funtsa litzateke euren gaitasunak islatu ahal izateko baldintza egokiz inguratzea haurrak”

Haurren motrizitate globalaren garapenaren inguruko saioa eskaini zuen Jaunjo Quintela psikologoak 0-3 zikloko hezitzaileen formaziorako ikastaroan, eta ondoren, bi orduz formazio pertsonaleko saioa egin zuten Alvaro Beñaran psikomotrizistarekin.

Emmi Pikler eta Lóczy Institutuaren ekarpenen berri eman zuen Quintelak. Myrtha Chokler psikologian doktore, psikomotrizista eta Pikler pedagogian adituaren baieztapen batetik abiatu zuen saioa: “Gaur egungo nahasmenduak pixkanaka-pixkanaka suntsitu egin du hazierari buruzko gure arbasoen ezagutza eta ezbaian jarri ditu jakinduriak, sinesmenak, helburuak eta prozedurak”. Psikologoak bat egiten du ideia horrekin eta horrexegatik uste du haziera zentzuko bat berreskuratu behar dela eta ahalegin serioa egin behar dela gaur egungo bizimodua egonkortasunean, baretasunean, segurtasunean eta lotura afektibo sendoetan oinarritutako haziera



moduetan izaten ari den eragin suntsitzailea eragozteko.

Horretarako, baina, psikologoaren hitzetan lehentasunezkoa da haurraren bizitzaz eta garapen global osasuntsuaz zein garapen horretan hezitzaileek duten eginkizunaz eta euren nortasun profesionala finkatzen duten gakoek gogoeta egitea: “Lanean diharduten profesionalak (eta orain formazioa jasotzen ari direnak etorkizunean lan hori egiteko) egunero 4 hilabete eta 3 urte ar-

teko hurrekin elkarbiziko dira. Zein da lan horren zentzua eta edukia? Zein dira geure buruari jartzen dizkiogun helburuak?”.

Quintelaren esanetan, helburuez hitz egiteak Haur Hezkuntzako bigarren zikloko hezitzaileen esku (edo bi urteko haurren geletako hezitzaileen esku) zein haur mota (nolako ezaugarriekin) utzi nahi den pentsatzea dakar. Bere aburuz, hauek dira jomugan izan beharreko xedeak:

-Lasaitasuna, sosegua duten haurrak.

-Gorputzaren ideia positibo bat eta mugimenduetan harmonia, trebetasuna, plastikotasuna duten haurrak.

-Jarduera aberatsa, anitza eta esperimentatzeko interesa duten haurrak.

-Jarduera eta jolasetan ahalegintzeko gaitasuna, kontzentrazioa eta inplikazioa duten haurrak.

-Porrot sentimendurik gabe euren buruaren eraikuntza aktiboan ekimena eta autonomia duten hau-

rrak.

-Autoerregulatzeko gaitasuna eta beren buruaren kontzientzia duten haurrak.

-Euren buruarengan konfiantza eta barne segurtasuna duten haurrak.

-Hazteko alaitasuna, konfiantza eta bizitzaren eta ingurunearen ideia positiboa duten haurrak.

-Euren burua zaintzen duten haurrak.

-Arrisku txikiak beren gain hartzeko gaitasuna duten haurrak.

-Helduekin harreman ona eta beste haurrekin liskar gutxi duten haurrak.

-Beste haurrekin eta inguruko helduekin errespetuzko harremanak, beroak eta adeitsuak dituzten haurrak.

Guraso zenbaitek hazieraren inguruan maiz pentsatzen dute gauzak ondo egiten ari ote diren edota are hobeto egin ote ditzaketen. Beste hainbeste gertatzen da Haur Zaintzako Zentroetako hezitzaileen kasuan ere. Quintelak gogoratzen duen moduan, hazieraren esparruko iturri sinesgarri bat aurki daiteke (mediku pediatria bat, haur psikologo bat, unibertsitate bat...) iritzi bat emango duena, eta luze gabe beste iturri bat aurki daiteke (hau ere sinesgarria: beste mediku pediatria bat, beste psikologo bat, beste unibertsitate bat...) justu kontrakoa esango duena. "Bi mutur horien artean ere mota guztietako iritziak, aholkuak eta metodoak daude, horiek ere, nola ez, beste hainbat iturri sinesgarriren babesa dutenak. Ezin da horrela izan, ezin gaitezke nahasmen-duan biziz".

Fisikan, astronomian edota matematiketan gertatzen den bezala, hazieraren inguruan ere badira haur txikiak, haien hazkuntza-dinamika eta haziera hobeto ulertzeko aukera ematen duten deskubrimendu zien-

tifiko garrantzitsuak. Eta Quintelak gogoratzen duen eran, aurkikuntza horietako batek zerikusia du motrizitate globalaren garapenarekin; hots, gizakia narrastaka ibiltzera, esertzera, zutik jartzera eta azkenik, oinez aise ibiltzera eramaten duen bidearekin. Aurkikuntza multzo hori Hungariako pediatria bati zor zaio, Emmi Pikler doktoreari hain zuzen. "Zientzia eta giza-ikerketak alor bakoitzak une garrantzitsu eta pertsonaia garrantzitsuak izan ditu. Nikolas Kopernikok Astronomiaren bilakaeran edo Charles Darwinek Biologiaren bilakaeran eginiko aurkikuntzen parean jarri dezakegu Emmi Piklerrek haur txikien hazkuntza eta

garapenaren alorrean eginikoa. Pediatria honi ume txikien motrizitate orokorrari dagozkion aurkikuntza garrantzitsuak eta haur txikien garapenerako baldintza egokien bilaketa ugari zor dizkiogu. Bere ausardiak ikergai zientifiko bilakatu du haurren eguneroko bizitza".

### Bere kasa jarduteko gaitasuna

Emmi Piklerren eta Lóczy Institutuko taldearen aurkikuntzak originalak direla dio psikologoak eta zailentzen jartzen dutela helduak haurtxoaren motrizitatearekiko duen jorkaera tradizionala; zalantzen jartzen dituzte mundu osoan zabaldutako, onartutako eta berezkozat jotako





eguneroko jokaerak. Izan ere, haurren garapen motorrarekin loturiko faktoreen artean, garrantzi handia ematen zaio gurasoen (edo haien ordezkoreen) irakasle rolari; helduaren esku-hartzea mundu osoan zabaldua eta onartuta dago, eta berezkozat jotzen da. Planteamendu horren arabera, beharrezkoa da haurra eserita jartzea, esertzen laguntzea, eserita mantentzea, zutik jartzea, zutitzen laguntzea eta ibili araztea. Horrez gain, sabelaldeko prokubitoo aldi garrantzizkotzat jotzen dutenen iritziz, haurrari buelta eman behar zaio ahuspez etzanda egin dadin: “Haatik, Emmi Piklerrek eta Lóczy Institutuko taldeak ateratako ondorioak aurkikuntza originalak dira eta ondorio horiek umearekin egoteko eta hura ikusteko bestelako modu bat zabalitzen digute, bestelakoa gure egiteko moduaren aldean eta are alderantzizkoa senak ustez esaten digunaren aldean”.

Aurkikuntza horiei esker, gaur egun, jakina da ez dela beharrezkoa esertzen, zutitzen edo oinez ibiltzen erakustea haurrak hori dena egin dezan: “Haurtxoek sekulako dinamismoa dute bere baitan, eta inguruneak horretarako aukera ematen badie, esperientziaz espe-

rientzia etengabe garatzen doaz, harrigarriak gertatzen zaizkigun harmonia eta erabakitasunez... Bere kasa jarduteko haurtxoaren gaitasuna, horretan jartzen duen interesa eta hartzen duen plazera, bere helburua erdiesteko eta bere eremua menderatzeko erakusten duen irrika harrigarriak dira”. Irakasleak esplikaturako eran, haurrak bere kasa bilatuko du mugitzea, narras-tea, gero saiaturiko da esertzen, zutitzen, eta azkenik oinez ibiltzen: “Segurtasunezko giro batean bizi baldin bada, bere baitan gordetzen duen dinamismoari esker berez es-kura ditzake lorpen handi horiek, ongizatez eta osotasunez, helduaren esku-hartzerik gabe”. Aurkikuntza original horren atzean, berezko ahalmen batekin jaiotzen den haurtxoaren kontzepzioa dago; ahalmen hori beti ezohikoa da eta haurtxoak berak izango du hura garatzeko desioa eta gaitasuna. “Helduek hau edo bestea egitera bultzatzen ez dituztenean, zerbait harrigarria gertatzen da: barne indar batek, beren gorputzarekin eta ingurune-ko objektuekin esperimintatzeko gogo batek bultzatzen ditu haurrak”. Baina Quintelaren hitzetan, horrek ez du berdin balio familia batean, sehaska-etxe batean edo

haur-eskola batean, nahiz eta bere familian bakarrik hezitako haurrak eta haurtzaindegi batean ere hezitakoak bilakaera berbera dutela dio: “Kasu guztietan etengabeko garapena eta haur guztientzat komunak diren etapa-segida bat antzematen dira. Eskuratze datak aldagarriak izan daitezke oso, baina eskuratzearen kalitateari erreparatu behar diogu”.

Quintelak azaldu bezala, sarri haurrak ezarritako hainbat parametroekin (gurasoek eurek, haurren laguneak, auzokoek, medikuek eta psikologoek, aldizkari espezializatuek, hilabeteka zehaztutako garapen test-ek... jarritako parametroak) bat egitera “behartzen” dira, aldiz gakoa dago berezkoa duen erritmoaz garatzeko aukera ematean. Izan ere, baldintza horietan gora egiten du haurrak bere buruan duen konfiantzak, murriztu egiten du helduekiko mendekotasuna, bere ekintzak asebetetasunez egiten ditu eta barrutik ateratzen zaizkiola sentitzen du. “Gure lanaren funtsa litzateke euren gaitasunak islatu ahal izateko baldintza egokiz inguratzea haurrak. Haurra estimulatutako beharrik ez dagoela jakiteak harritu gaitzake, are kezka ere sor diezaguke, baina hauxe da egia: mugimendu askatasun osoa duten haurren jabetze erritmoa eta ‘helduek estimulatutako’ haurrena berdina da”. Piklerren hitzak ekartzen ditu gogora: “Funtsezkoa da haurrak bere kasa deskubritzea ahalik eta gehiena. Zeregin bakoitzean laguntzen badiogu, bere garapenaren arlorik garrantzitsuena kentzen diogu. Gauzak esperimintatze independentearen bidez lortzen dituen umeak oso bestelako ezagutza eskuratzen du egindako konponbideak eskaintzen zaizkion ume baten aldean”.

## Eraikuntza, talde-lanetik abiatuta

**Talde-lanaren bitartez kultura ekintzailea eta digitala sustatzea helburu duen proiektua da Kosmodisea. Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko departamentuko eta Europako Gizarte Funtseko ekimen bat da eta unibertsitatekoak ez diren hezkuntza sistemetara bideratuta dago. [www.kosmodisea.net](http://www.kosmodisea.net) plataformaren bidez kudeatzen da egitasmoa eta bere baitan era askotako proiektuak burutzen dituzten ikasleek.**

Kosmodisea egitasmoa ikasleen ideia-jasa batekin hasten da eta kursoan zehar ideia-jasa horretan ateratako proiektua burutzen dute hiru faseetan bereizitako planetak osatuz: IKONO planeta, GRAPHO planeta, eta MITO planeta. Fase bakoitzean, ikasleek eurek proiektuaren garapeneraren ebaluazioa egiten dute eta amaieran adin-tarte edo sistema bakoitzeko hiru proiekturik interesgarrienak aukeratzen dituzte. Adinaren arabera, ikasle-taldeak bost sistematan daude banatuta: NEO sistema (LH1-LH3), FISIO sistema (LH4-LH6), GLOS sistema (DBH osorik), LOGO sistema (Batxilergoa) eta TEKHNE sistema (Heziketa Zikloak).

Gipuzkoako zentroetako edozein taldek har dezake parte eta ikasurte bat irauten du proiektuak. Aurten zortzigarren edizioa ari dira egiten, eta kopuruei dagokienez, gutxi gora-behera, urtero 30-35 zentrok, 80 irakaslek eta 1.300-1.400 ikaslek hartzen dute parte. Gutxienez lau laguneko taldetan elkartu behar izaten dira ikasleak, baina kopuruak goitik ez dauka mugarik: Lehen Hezkuntzako en kasuan, sarri, gela osoak hartzen du parte.

Proiektuaren koordinatzaileek azaldu bezala, berrikuntza mota batzuk proposatzen dira eta horien ba-



rruan egin behar izaten dute ikasleek proiektuaren garapenerako prozesu osoa: berrikuntza zientifikoa eta ingurumena, berrikuntza teknologikoa, berrikuntza artistikoa eta soziala, eta berrikuntza herritarra edo parte-hartze aktiboa. Hasierako ideia-jasan ikasleek taldeka jarrita lau berrikuntza horien inguruko proiektuak proposatzen dituzte eta partaideek eurek atera diren ideien artean bozkatzeko dute gustukuenak aukeratzeko. Berrikuntza-mota bakoitzeko ideia irabazle bategonohi da eta horixe izaten da gero prozesu osoan zehar landu

beharko dutena. Kosmodisea proiektuan parte hartu nahiez gero, lehen-lehenik irakasleak sistemantara eman behar du. Behin irakaslea Kosmodisean sartzen denean, zentroa bera ere sartuta dago eta ikasleak taldeak sortzen has daitezke.

Irail amaieran, taldeak osatuta dituztenean ideiak proposatzen hasten dira. Talde bakoitzak ideia bat proposa dezake. Hasieran talde bakoitzak nahi adina ideia bota zitzakeen, baina koordinatzaileek adierazitako eran, zailtasunak sortzen ziren. Izan ere, milaka ideia pilatzen ziren eta aukera

egitea oso zaila egiten zitzaizen ikasleei. Gaur egun ideia bat bakarrik proposatzen dute eta ideia hori publiko egin dadin irakasleak onetsi behar du. Ideiarik interesgarrien aukeraketa ere ikasleek eurek egiten dute.

Idea gehienak ikasleen interese-koak izan ohi dira. Koordinatzaileen esanetan, naturaren edota animalien zaintzarekin loturikoak oso ohikoak izaten dira, baita tribu urbanoen edota Parkour-aren gainekoak ere. Askok errepikatzen den beste ideia bat adin-tarte desberdinetako arteko erlazioei buruzkoa da (nagusiak zaindu, nagusiekin harremanak hobetu, antzinako jolasak ikasi, etab.). Aurtengo edizioako ideia irabazleak berriz, hauexek izan dira: Berrikuntza zientifikoan eta ingurumenean, Deserosotasun gutxiago eta birziklapen gehiago (hondakinen kudeaketarako sistema eraginkorrago bat lortzeko proiektua); Berrikuntza hiritarra: parte-hartze aktiboan, #stopbullying (nerabeen arteko bullying kasuei aurre egiteko proiektua); Berrikuntza kultural-artistikoan, Kultura ezezagunak zabaldu! (inguruan ditugun baina ezagutzen ez ditugun kulturak ezagutarazteko proiektua); eta Berrikuntza teknologikoa eta gizartean, E-hiria (QR kodeen bidez norbere herriaren inguruko informazioa emateko proiektua).

Gai bakoitzeko irabazle bat egoten da. Lau ideia ateratzen dira ikasurte guztirako: berrikuntza bakoitzeko bat. Talde bakoitzak erabakitzen du zein ideia landuko duen ikasurtean zehar. Behin ideia aukeratuta Kosmodisea lanak hasten dira eta urriaren amaieratik aurrera proiektua aurrera ateratzeko epea irekitzen da. Prozesu guztia gidatuta dago, bai ikasleei dagokienez eta baita irakasleei dagokienez ere, eta horixe da antolatzaileen asmoa ere. Helburua da ekasleak euren kabuz ekintzailetasun jarrera barneratzen hastea. Eta hori lortzeko zer? Proiektu batzuk martxan jartzen dira, proiektu horiek aurrera eramateko gaitasunak barneratuz. Horretarako, hiru planetetan

zehar gutxienez jaso beharreko gaitasun batzuk identifikatzen dira, eta horiek eskuratu ahal izateko, metodologia zehatz batzuk lantzen dira.

### **IKONO planeta:**

Kosmodisea eraikitze bidaia IKONO planetan hasten da eta proiektua aurrera eramanez ahal izateko, lehen egiteko beharrak identifikatzea da, ondoren, diagnostiko bat egiten dute. Lehen planetako prozesuan ikasleei eskatzen zaien emaitza fotomuntaketa bat egitea da. Diagnostikoa egin eta beharrak identifikatzeko galdera batzuk ematen zaizkie. Adibidez, lehen planeta honetan bilatzen den gauzetako bat da ikasleak ikastetxetik kanpora ateratzea informazio bila.

IKONO planetako lanaren emaitza, hots, fotomuntaketa lehen hiru hilekoaren amaierarako entregatu behar dute. Talde bakoitzak egin duen lana plataforma batera igoko du eta edonork ikusteko moduan jarri. Lan hori taldekideek eurek nahiz beste partaide batzuek ebaluatuko dute gero.

Ebaluazioari garrantzia handia ematen diote Kosmodiseako koordinatzaileek. Alde batetik, euren kideen lana baloratzen dutelako ikasleek, eta bestetik, euren burua bera baloratzen dutelako. Ebaluazio sistema asko landu dute. Sistemak berak euren zentrokoak ez diren beste lau talde ematen dizkie ikasleei ebaluatzeko. Horiez gain, euren lana ere baloratu behar izaten dute. Ebaluazio sisteman egin behar duten lehen lana konparaketa da, euren lana nola kokatzen duten besteen lanak ikusi ostean. Batzuetan gertatzen da norberak bere buruari puntuaziorik altuena ematea, baina prozesua aurrera doan heinean gero eta zorrotzagoak dira euren buruarekin.

Planeta bakoitzean irabazle bat egoten da, baina horrek ez dauka horrenbesteko garrantzirik amaierako puntuaziorako, nahiz eta errekonozimendua jasotzen duten. Izan ere, koordinatzaileek dioten moduan, hiru

planetetako lana puntuatu behar da eta hirugarren planetako puntuak pisu handiagoa dute lehenengokoek baino, hala talde guztiak irabazteko aukera izango baitute. Talde bat nahiz eta puntu gutxiarekin abiatu, hurrengo faseetan ondo eginez gero, beste taldeak gainditzeko aukera izango du. Gainontzean, gerta daiteke, hasierako planetan atzera geratu denak proiektua uztea, eta antolatzaileek hori behintzat ez dute nahi. Gainera, ebaluazioa ahalik eta objektiboa izan dadin partaideek eurek zenbat puntu dituzten ikusten dute, baina ez besteak nola doazen. Bestela matematikak egiten hasten dira eta puntuak kalkulu horien arabera ematen dituzte, eta ez benetan lan batek merezi duela iruditzen zaienaren arabera.

Ebaluazio prozesuari buelta asko eman dizkiote eta uste dute pedagogikoki nahiz didaktikoki oso planteamendu ona duela. Koordinatzaileek ez dute dudarik proiektu honetan auto-ebaluazioa dela euren lana ebaluatzeko modurik egokiena. Gainera, ebaluatzen dituzten balioak kulturakintzaile bat eratzen laguntzen duten balioak dira. Ebaluazio prozesuan alor asko baloratzen dituzte: talde-lana, sormena, ekimena, erantzukizuna, analisisa. Horietako bakoitzaren barnean parametro batzuk sartzen dira. Sormenari dagokionez, originaltasuna, iniziatiba, ea kanpora irten diren, ea gutxienez egin beharrekoak gain beste zerbaitek egiten duten; erantzukizunari dagokionez, ea egunean entregatu duten lana, ondo bukatuta ote dagoen, ondo igota dagoen, etab.

### **GRAPHO planeta:**

Beharrak identifikatu eta diagnostikoa egin ostean, bigarren planetan sartzen dira ikasleak. Bertan, GRAPHO planetan, plangintza egin behar izaten dute: zeinek egingo duen zer, zein baliabide beharko dituzten, metodologia, antolaketa... eta hori guztia Wiki batean islatzen dute. Hasieratik talde bakoitzak Wiki bat dauka eta

bertan egunero hainbat informazio sartzen joan behar dute. Wiki hori ere ebaluatu egiten da bigarren planeta-ko prozesua amaitu ostean.

### MITO planeta:

Ordura arte egindako lan guztia plazaratzen dute planeta honetan. Batzuek, amaieran aurkezpena egiten dute; beste batzuek berriz, euren proiektua burutzen dute (adibidez, batzuek nagusiak alaitzeko tailerrak proposatu eta egin zituzten) eta horren grabazioa egin eta bideoa Youtuben zintzilikatzen dute. Apirilaren azkeneko astera arte dute bideoa egiteko tarte. Amaierako fasean benetan egin duten lan edo tailer edo antzerki baten emaitza aurkeztu behar badute, koordinatzaileen aburuz, oso gogobetegarria izaten da ikasleentzat. Izan ere, euren lana publiko izatea, gurasoei erakutsi ahal izatea, Interneten izaten dituzten bisitak... gustuko izan ohi dute.

Kosmodisea proiektua aurrera eramateaz gain, [www.kosmodisea.net](http://www.kosmodisea.net) webgunean badituzte beste hainbat atal ere, hala nola, simulatzailea edota foroa. Simulatzailearekin taldean erabakiak hartzeko gaitasuna lantzea dute xede: planeta bat gestionatu behar dute eta horretarako erabaki batzuk hartu behar dituzte. Hartutako erabakien arabera planeta hori hobeto edo okerrago egongo da eta horren arabera puntuazio bat eskuratuko dute. Foroa, berriz, guztia digitalean izanik, ikastetxeen arteko harremana bideratzeko sortu zuten, elkarlana bultzatu eta dudak partekatzea du helburu. Horrez gain, Kosmodisea aurrera eraman ahal izateko materiala ere webgunean dute zintzilikatuta. Liburutegian gidaliburuak dituzte, baina ikasleek ere gai horien inguruan topatutako informazioa bertan igo eta beste ikasleekin partekatzeko aukera dute. Egiten dituzten ekarpenen arabera puntuak jasotzen dituzte gainera, parte-hartzea sustatzea baita xedea. Azkenik, telefono linea bat ere jarri da ira-



kasle nahiz ikasleen kezka jasotzeko. Egitasmoak martxan daramatzen zortzi urteetan parte-hartzaileek egin dituzten ekarpenak kontuan hartu izan dituzte antolatzaileek. Maiatzean Kosmodisea proiektua amaitzen den unean, kosmo berria eraikitzen hasten dira. Hortaz, ikasleek egiten dituzten ekarpen eta feedback guztiak jasotzen dituzte eta hobetzen saiatzen dira.

### Balantza baikorra

Orain arte Kosmodiseak eman duenaren balorazio oso positiboa egiten dute koordinatzaileek. Landu nahi diren balioak lantzen dira, eta ikastetxeei eurei ere eskatzen zaie proiektuaren balantzea egiteko. Erabakiak hartzeko gaitasuna, autonomia edota ekintzailetasuna bezalako balioak ere lantzen dira, baina bai irakasleek eta bai ikasleek gehien baloratzen dutena talde-lana da.

Antzekoa nabarmentzen du Herri Ametsa ikastolako Olatz Goikoetxeak ere. Kosmodisea proiektuaren arduraduna da ikastetxean. Herri Ametsan proiektua martxan jarri zenetik hartzen dute parte, batez ere, DBH 3 eta DBH 4ko ikasleekin, adin tarte horretan ikasleek autonomia eta iniziatiba handiago izaten baitute. Goikoetxearen esanetan proiektu oso polita da Kosmodisea eta oso baliogarria eguneroko ikastetxean lantzen saiatzen diren balioak sustatzeko. Hala ere, proiektuan aritu den urteetako

zapora gazi-gozoa du, ikastetxean proiektu eta betebeharrak asko baitituzte eta horrek Kosmodiseari nahi beste denbora eskaintzeko aukera kentzen baitie: “badaukat arantza txiki bat: gauzak ez nahi bezain ondo egin izana”.

Kosmodisea proiektuari dagokionez, bi alderdi nabarmentzen ditu Goikoetxeak: batetik, talde-lanari ematen zaion garrantzia, eta bestetik, IKTak lantzeko modua. “IKTak erabili behar dira proiektua aurrera eraman ahal izateko, eta hortaz, gaitasun zehatz batzuk lantzen dira. Adibidez, programa zehatz batzuk erabiliz irudiak edo bideoak editatzen ikaste dute ikasleek. Horrez gain, gu ikastetxearen egunerokoan bultzatzen saiatzen garen balioak ere sustatzen dira: talde-lana, ardurak hartzea, autonomia, etab.”.

Goikoetxeak, bestalde, azpimarratzen du Kosmodisean jorratzen diren gaiak ikasleen eguneroko bizimoduaren parte direla, eta gainera gogoko dituztela, azken batean, gaiak definitzerakoan ere eurek parte hartzen dutelako: “Hortik aurrera Kosmodiseak zehaztu eta gidatutako bidea jarraitzen dugu. Saiatzen gara lan hau guztia eskola orduetan egiten, baina aldi berean ikasleei eskatzen zaie eurak ere antolatzeko etxean edo jolas-orduetan, etab. Azken finean, proiektu honen bidez ikasleek iniziatiba izaten eta ardurak hartzen ikas dezaten nahi dugu”.

JOKIN ZAITEGIREN EKARPENAK EUSKAL CURRICULUMEAN

## Euskaratik eta euskaraz, askatasunerantz

**Guatemalan sortu zuen Euzko-Gogoia aldizkariarengatik egin zen ezagun Jokin Zaitegi, baina ez da garrantzia txikiagokoa euskarazko hezkuntza-plangintzarako egin zuen proposamena ere. Hizkuntza kultuaren ildotik abiatuta, euskara jakintza mailara eraman nahi izan zuen batetik; eta, bestetik, hezkuntza-eredu klasikotik abiatuta, Euskal Herrirako unibertsitate-proiektua eraikitzen saiatu zen. Horren guztiaren inguruan ikertu du Jon Diaz Egurbidek tesian.**

Orain arte arakatu gabeko sail akademiko batetik —hezkuntzarenetik, hain zuzen— begira jarrita hurbildu da Jon Diaz Egurbide Zaitegirengana. Euskal Herrira begira zein hezkuntza-proiektu sortu nahi izan zuen aztertu du, hezkuntzaren historian nahiz euskal curriculumean dagoen tokia aitortzeko: “Badira hainbat euskal autore —Zaitegi, Orixe edo [Andima] Ibinagabeitia bera— izugarritzko lana egin dutenak eta erabat ahaztuta dauzkagunak. Horiei merezi duten lekua emateko, beste urrats bat egin nahi izan dugu lan honekin”.

Jokin Zaitegi mutikoak urte gutxi egin zituen Arrasaten bere familian, hamalau urterekin Jesusen Lagundiak Durangon zuen ikastetxerako bidea hartu baitzuen. Geroztik Loiolan eta Oñan aritu zen ikasten; 23 urterekin Ameriketara joan zen, eta han eman zituen urterik gehienak. Hantxe hasi zen bere ibilbide literarioa ere, gerra aurreko euskara suspertzearen aldeko mugimenduaren barnean. Jokin Zaitegi, gainera, idazle eta



itzultzaile izateaz gain, ogibidez unibertsitate-irakaslea izan zen Guatemalako San Carlos unibertsitatean. Euskaraz soilik produzitu zuen, eta poemak, itzulpenak, liburu erlijiosoa, akademikoak, eta abar egin zituen.

Nagusiki euskarari, kulturari eta hezkuntzari emandako bizitza izan zuen arren, maila ideologiko eta poli-

tikoan ere eman zituen urratsak. Horren erakusle da 1956an Jose Antonio Agirre lehendakariak deituta Parisen egin zen Euskal Batzar Orokorra. Ebidentziarik aurkitu ez arren, Diaz Egurbidek uste du Agirrek berak esanda etorri zela Zaitegi Euskal Herrira, eta haren eskariz hartu zuela parte biltzarrean: “Agirrearekin zuen harreman estua eta laguntasuna na-



barmenak dira, eta uste dugu Parisko Batzarraren bueltan bere egitekoa Kultura Saila edo antzeko zerbeit egituratzea izango zela. Pentsatu behar dugu garai hartan ez zela kulturalkiegituratutako ezertxo ere egongo hemen”.

Zaitegi euskal letrek izan duten humanista klasikorik handienetako bat da Diaz Egurbideren aburuz, jesuiten eskolan bikain prestatua. Lagundian egindako ibilbidea urratsez urrats aztertu ostean, jesuiten eskolako pedagogiak Zaitegiren hezkuntza-ikuspegiaren duen garrantziaz jabetu da.

Zaitegik euskal curriculumari egindako ekarpenak, berriz, hiru eremuren inguruan sailkatzen ditu Diaz Egurbidek: lehenik, Euzko-Gogoa-ren bueltan egindakoa; bigarrenik, Euskal Kulturaren Alde (EKA) elkartearen barrukoa; eta, azkenik, Euskal Ikastegi Nagusiaren proiektuari dagokiona.

### **Euzko-Gogoa, erbesteko euskal idazleen topaleku**

Guatemalan sortutako aldizkari hau euskara hutsezko lehen kultura-aldizkaria da. Diaz Egurbidek azaldu bezala, beronen sorkuntzan kontuan izan behar dira Andima Ibinagabeitia eta Nikolas Ormaetxea “Orixe” Zaitegiren lagunak, lankidetzan horretatik jaiotzen baita Euzko-Gogoa aldizkaria. Loiolako jesuiten eskolan ditu haziak, eta aldi hartan erbesteko euskal pentsamenduaren errepresentazio inportanteena izan zen, eta euskara bultzatzeko izan zuten plaza bakarrenetarikoa. Batez ere, elizgizonak osatzen zuten eta filosofia klasikoaren inguruan egituratzen zen. “Zaitegik atzerrian barreiatuak da biltzan idazleak biltzeari ekiten dio, hauxe da aldizkariak bete nahi zuten

lehen helburua. Euzko-Gogoa bere xedeak zein diren zehazten duen atalean, idazle erbesteratuen topagunea izan nahi duela esaten digu”.

Bi aldi izan zituen Euzko-Gogoa: lehenengoa, Guatemalan argitaratutakoa, 1950. eta 1955. urte bitartean, eta, bigarrena, Miarritzen, 1960an desagertu zen arte. Lehenengo aldian 27 zenbaki eman zituen argitara, eta, bigarrenean, 17. Guztira 10 urtez egon zen bizirik. Hasieran, hila-beteko argitalpena izan nahi zuten, baina lehen bi zenbakiak bakarrik argitaratu ziren hilabetekari modura. Era berean, Euzko-Gogoa izan zen erbestean liburu gehien argitara eman zituen argitaletxea, 9 guztira.

Diaz Egurbidek dio Euzko-Gogoa-ren xedei begiratzea soilik nahikoa dela euskal curriculumari zekarzkiek ekarpenez ohartzeko: lehenik, euskal nortasunaren berreskurapena aitortzen da; bigarrenik, hizkuntza-nazionalismoaren aldarrikapena; eta, hirugarrenik, kultura landuaren bidetik Euskal Unibertsitateira iristea. “Euskal Curriculumerako edukari dagokionez asko dugu aldizkarian, eta ez berak bakarrik idatzita, beste hamaika egilerekin elkarlanean osatuta baizik. Poesia, prosa, antzerkia, filosofia, denetik biltzen da bertan, oso landua eta emankorra da. Ez dago dudarik Jokin Zaitegiren Euzko-Gogoa aldizkariak kultura landuari ematen zion garrantziaz”.

Zaitegik Euskal Herrira itzuli ostean egin zituen bileren gaineko hainbat dokumentu aztertuta, Diaz Egurbidek argi ematen du Zaitegik aldizkariarentzat zituen asmoen berri: “Bat, euskal berpizkundean parte hartzeko asmoa; bi, susperraldi baten barnean idazle guztiak bildu eta Elkartearen sortzea; hiru, Euzko-Gogoa Euskal Herrira ekartzean uste zuten aldizkariari zabalkunde handiagoa emango ziola”.

Zaitegik aldizkaria Euskal Herrira eramanez gero onurak baino ez zi-

tuela izango pentsatuko zuten, baina ez zen horrela izan. Ehun idazletik gora bildu arren, Miarritzeko aldian desagertu egin zen, eta, horrekin batera, Zaitegi ere bai: “Gure uste apalean, erabaki politikoek behartzen dute aldizkariaren amaiera, idazle berrien aldeko apustuak eta EAJko zuzendaritzak proiektu honekin bat egin ez zutelako, are eta gutxiago, zuzendariaren xedearekin, alderdiaren kezka nagusia ez baitzen euskararena”.

### **EKA, euskal kultura suspertzea xede**

Euskarari galera handiena ikasien hizkuntza ez izatek dator kiola eta salbazioa, hots, kultura-tresna jasoa izatera iristea, nonbaitetik etortzekotan unibertsitatek etorriko zaiola esaten zuten Zaitegik berak 1956ko Parisko Euskal Batzar orokorrean, Diaz Egurbidek liburuan jasotakoaren arabera, eta euskal kultura sustatzeko urratsak emateko proposamena egin zuten.

Urte berean, abenduan, Parisen beste bilera bat egin zen Kultur Batzordea sortzeko, lehendakariaren bermearekin. “Euskal Kulturaren Alde” izena jarri zioten, eta xede nagusia euskara sustatzea zuten. Batzorde hartan izen hauek zeuden: Joxemiel Barandiaran, Jesus Maria Leizaola, Josu Solaun, Telesforo Monzon, Joseba Errezola eta Manu Sota; eta horiez gain, Gonzalo Nardiz diruzaina, Andoni Urrestarazu idazkaria eta Jokin Zaitegi lehendakaria. “Guatemalatik zekarren bere plangintza aurkeztu zuten, oso zehatza, Euskal Unibertsitatea eraikitzeari buruz ziharduena. Hortik sortuko dira ‘Euskal Idazle Alkartasuna’ eta ‘Euskal Kulturaren Alde’ batzordea bideratzeko proiektu bikoitza, emaitzetan lehena hutsala eta bigarrena urria. Ikusten da asmo oso ona dutela, baina egituratzen asko kostatzen zaiela. Tristura ematen du ikusteak sekulako lana egin zutela eta gero hutsaren hurren-



goan geratu zela dena. Uste dut ipuin-lehiaketa batzuk eta umeentzako aldizkariren bat argitaratu zutela, 'Agirre lehiaketa' sortu zutela eta ezer gutxi gehiago".

EKAren asmoa euskara suspertzea eta euskararen aldeko diru-iturriak aurkitzea zen, eta bi helburu zehatz markatu zituzten: batetik, era guztietako euskal egitasmo kulturalak finantzatzeko dirua lortzea, eta, bestetik, askatasuna iristen zenerako euskararen normalizatorako eta euskal kulturaren garapenerako programa prestatzea. Era berean, Lehen Hezkuntzatik hasi eta unibertsitate arte euskararen irakaskuntza egituratu beharraz hitz egiten zuten, eta horretarako beharke ziren maisu eta irakasle prestatuez nahiz irakaskuntzarako liburu, testu eta materialaz.

Beraz, EKAK lehenengo urteetan esandakotik at, "Euskal Irakaskuntza Egitara" prestatu zuen. Kultura-egitasmo osoaren barruan Euskal Herrian biltzen ziren elkarte guztiekin egin nahi izan zuten plangintza hori.

### **Euskal Ikastegi Nagusia, euskarazko lehen unibertsitatea**

Diaz Egurbideren liburuan jasotzen den eran, Zaitegi Guatemalan saiatu zen, Euskal Herrira begira,



euskara eta hezkuntza uztartzen unibertsitate-proiektu baten barruan. Hango San Carlos unibertsitatean irakasle izan zen, eta Humanitate Fakultatearen sorreran parte hartu zuen. Beraz, baita Iraultza Demokratikoaren garapenean ere. Unibertsitateko apaiz bakarra izan arren, aldaketa-prozesuan lerrotuta egon zen, "akademiko gisa Humanitate Fakultatearen sorkuntzan irakasle bezala eta Gobernuarekiko harremanetan hezkuntza indartzeko aholkulari gisara". Hango esperientzian oinarrituta prestatu zuen Euskal Herrirako proposamena.

Parisko Euskal Batzarrean euskal kultura sustatzeko asmoarekin eta Euskal Herria askatasun-bidean jartzeko balio zezakeelakoan, ikastetxe nagusia sortzea proposatu zuen Zaitegik. "Gizabide Ikaskuntzak" izena-

rekin, bost urteko ikaskuntza-plangintza aurkeztu zuen. Diaz Egurbidek liburuan jaso duenez, honelaxe dio Zaitegik berak: "Ameriketara bizi izan geranok, auxe ikusi dugu; nik beñepein argi ta Garbi ikusi det: Ikastetxe Nagusia izan da an, erriaren iturburu gai guzietan. Amerika erdiko errietara errien azkatasuna, nor ekarri zun? Ikastetxe Nagusiak (...) Euskal Ikastetxe Nagusia, gizon ikasleak euskararen alde ez izan bitartean, euskara beti izango degu il zorian".

Aurrez ere izan ziren Euskal Unibertsitatea sortu eta bideratzeko asmoak, baina Zaitegik amesten zuena ez zen ez erdarazkoa, ezta elebiduna ere, euskalduna baizik: "1918an egiten da lehen ahalegina Oñatin Unibertsitatea sortzeko, unibertsitate elebiduna. 36an ere egiten da ahalegina, baina oraingoan ere ez dira unibertsitate euskaldunazari. 56an egingo da lehenengo benetako saiakera curriculum bat mahaian jarrita Euskal Unibertsitatea sortzeko eta proposamen hori Zaitegirena da".

Liburuan ageri denez, hezkuntzaren bitartez "Lehenengo Irakaskintza"-k xede nagusi bi hauek zituen: batetik, haurren lehenengo ikasketa orokorrak, ikastola guztientzat egina izango den egitarauaren baitan; bestetik, 'Euzkadi' oso 'Euskal-Erri' (hitz honen zentzu osoan) berriro egitea. Egingarri izateko, arreta berezia eskaintzen zitzaion euskal irakasleak eratzeari eta euskaldun jakintsua sortzeari, "euskaldun kulturadun" izateari.

Jokin Zaitegik, Guatemalako Humanitate Fakultatean izandako esperientziaz baliatuta eta Jesuiten Eskolaren heziketa klasikoari jarraituta, Euskal Ikastetxe Nagusirako prestatutako curriculum-diseinua aurkeztu zuen. "Askotan irakurri diogu Jokin Zaitegiri Euskal Ikastetxe Nagusia eraiki behar zela. Baina nolako Unibertsitate-eredua proposatzen zuen

Zaitegik? Proposamena EKAn zela, Euskal Herrian egondako azken urteetan egin bide zuela uste dugu”.

Jokin Zaitegiren Ikastetxe Nagusiak euskara kultura eraman nahi zuen unibertsitatera. Diaz Egurbidek dioen moduan, Jokin Zaitegik lehenik euskara kultura lantzea proposatzen du: “Aldiz, Parisko Batzarren inguruan elkartzen diren gainontze-koen artean jarrera nahiko populista dago. Asko kritikatzten zuten bere aldizkaria oso garbizalea zelako, eta herriko jendeak gauza asko ez zituelako ulertzen. Kritika horiek entzun arren, bere proposamenarekin aurrera jarraitzen du”.

Greziar eta latindar autoreak eta literatura unibertsalean ezagunenak zirenak biltzen dira curriculum horretan. Bibliografian, gainera, ordirako euskarara itzuliak diren lanak soilik aipatzen ditu. “Jokin Zaitegiren asmo honetan, beraz, kultura landua klasizismoak ematen diola kontura-

tzen gara. Bere esperientzian oinarrituta eta Jesuiten Eskolari esker, euskaraz soilik izango den Gizabide-Ikasketak proposatzen ditu. Honetan datza berak diseinatutako unibertsitate-ereduaren berezitasuna, aurreikusiak ziren beste unibertsitate-ereduetatik erabat bereizten dena”.

Bost urteko ikasketak diseinatu zituen. Guatemalako San Carlos unibertsitatean baino urtebete gehiago. Baina hangoaren antzeko eredu jarraitzen du, Literatura, Euskara, Filosofia, Grekoa eta Pedagogia sailetakoko ikasgaiak biltzen baititu plangintza horretan. “Garbi dago planteatzen ari den curriculumari begiratuta dena dagoela euskaraz, ez da soilik maila politikoan esaten duela euskara kultura landu behar dela, baizik eta euskara kultura hori jada prestatuta dagoela lanerako. Beraz, berak pentsatzen du Ikastegi horretatik ateratzen diren pertsonak euskal kultura lantzeko eta euskarazko irakaskuntza

sortzeko gai izango direla. Niretzat euskal curriculumerako berak egiten duen proposamenik garbiena ideologiko-politiko da: euskara kultura unibertsitatera eramatea, eta ez soilik dauden liburu eta material guztiak euskaraz izatea, baizik eta euskal jatorrikoak izatea”.

Zaitegiren asmoek, dena den, porrot egin zuten. Arrazoi ekonomiko nahiz politikoak aipatzen ditu Diaz Egurbidek: “Zaitegik bere diru guztiak xahutu zituen aldizkaria aurrera atera nahian, eta diru-iturriak biltzen saiatu zen arren, ez zuen lortu. Kultura egituratzeko garaian ere babes politikoa falta izan zitzaion, soilik Agirrereren babesa zuen.

1960an, Jose Antonio Agirre hil ostean, ikusirik Jesus Maria Leizaola-ren Jaurlaritzak beste norabide bat hartu zuela, 1962an Zaitegi Guatemalara itzuli zen, euskal kulturarekin zerikusia zuen guztia utzi eta misioetara joateko.



Munduko Hiritarrok

## Kulturartekotasuna

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarako heziketa proposomena

Ezagutu dezakezu materiala gure hezkuntza-webgunearen bidez:  
[www.educacion.alboan.org/eu](http://www.educacion.alboan.org/eu)

Lor dezakezu material posta elektronikoko bidez:  
[pedidos@alboan.org](mailto:pedidos@alboan.org)

ALBOAN ☎ 944 151 135

10 € karpeta bakoitza



## Nola bultza dezakegu eskola komunitatea osatzen duten kideen parte-hartze aktiboagoa



Hezkuntzari bultzada bat emateko nondik jo behar dugun geure buruari galdetzen badiogu, aurretik hezkuntzaren diagnosi moduko bat egitea ez legoke gaizki. Eta horretarako Foucaultek proposatzen duen diagnosiak egiteko era egokia ikusten dut: “Zer da berria gaur, lehen ez zegoena?” galdera erabiltzea, hain zuzen.

Beraz, zer da berria gaur hezkuntzan, lehen ez zegoena, edo nabarmen areagotu dena? Banoa saiakera-rekin, zertzelada moduan ideiak botaz.

Nabarmena da, gure aita-amek eta are aiton-amonek ez bezala, gaurko gurasoek beren haurren heziketan bizitzen duten bakardadea. Hez-teko eta gizartean izateko eredu bakarra edo monolitikoa suntsitu genuen duela hamarkada gutxi batzuk, eta gaur, familia bakoitzak bere modura heztea onartzen dugu, ez bakarrik onartu, baizik eta, besteren haurren jokabideak bideratzen laguntzea, edo haien balizko beharrei erantzutea, ezin onartuzko esku-sartzea bezala jotzen dugu, gainera.

Nork bere haurren heziketaren ardura du, eta bakarrik bereena, honela ulertzen dugu gaurko gizartean.



**Maite DARCELES**  
EHU-KO IRAKASLEA

Eta hezkuntza ardura kolektiboetik, komunitateenetik, ezabatu, eta ardura indibidualera mugatu dugu.

Heziketaren ardura indibidualizatu, eta bestetik, garai bateko “etxea” desagertu egin da. Ni ikastolatik edo beste ekintzaren batetik, edo lagunekin aritu ondoren, etxera bueltatzen nintzenean —ordurako nire lagun askok ez bezala, hori ere esan behar da—, beti bazegoen bertan norbait, askotan jende asko (amonak etxe azpian denda izateak ere laguntzen zuen). Nire etxean beti bazen norbait hartuko ninduen. Eta ni-

re gurasoen garaian, berriz, hori haur eta gaztetxo guztien egoera zen, salbuespenik ia gabe (beraien ingurumarian bederen). Gaur hori ez da horrela, eta honek suposatzen du haurren zaintza bermatzeko gurasoek eguneroko plangintza bat egin behar izaten dutela, orduz ordu haurra non eta zeinekin egongo den zehaztuz.

Bizimodu zatikatu batean bizi gara (denborazko eta espaziozko zatiketa) eta haurrak ere, beste aukerarik gabe, fragmentazio horretan sartzen ditugu erabat, gu baino era bortitzagoan seguruaski. Kronosen edo orduen agintepean bizi gara.

“Nola hezi” galderaren aurrean, berriz, gurasoek informazio zaparrada jasotzen dute, baina, askotan, kontrajarriak diren ikuspegi eta aholkuak dira, eta norbere hautua egitea ez da lan makala horrenbeste zarataren artean.

Honekin guztiarekin esan genezake gaur egun gurasoek zailtasunez bizitzen dutela beren seme-alaben hezkuntza. Eta honek bi eratako ondorioak ere ekartzen ditu: eskolaren gain gehiegizko delegazioa (ezinak minez bultzatutakoa) edota eskolaren gain esku-sartze negatiboa, hau da, kontrolaren bidetik, presioaren

bidetik, egin nahi den esku-hartzea.

Guraso-irakasle harremana, beraz, elkarlanean oinarrituz eraiki beharrea, batzuk besteen lana gainbegiratzeko duten harreman-mota bezala garatzen da. Honek, gorpil-zoroan bezala, gurasoen bakardade sentimendua areagotu egiten du eta irakasleengan, berriz, presioa eragiten. Eta hau ez da irakasleen kolektibo honek jasaten duen presio bakarra; beste eremu askotatik ere badatorkie.

Hezkuntza-aparatuak, hezkuntza modu mekanizistatik edo makinikoan ulertuta, hezkuntzaren emaitza eta kalitatea hobetze aldera esku-hartze geroz eta handiagoa ezartzen du: eskakizunak, txostenak, lan-lerroak, landu beharreko gai berriak edo aurrekoen xehetasunak, unitate didaktikoak, ebaluatzeko moduak, bete beharreko zereginak... pentsa litekeen oro arautuz eta hau beteko dela segurtatzeko sistemak ezarriz, hala nola, hainbat prozedura, ala ikuskaritza-aparatu bera.

Gizarteak, eta honen ahotsa bilakatzen diren komunikabideek (edo alderantziz da?), edozein arazoren aurrean soluzioak bilatzerakoan hezkuntzatik hasi behar dela esan eta askotan hau *programa* edo *ikasgai* berririk bilakatzen da, honela arazoari aurre egingo zaiolakoan. Honek ere irakaslearen lana zaildu egiten du, kolektibo honek ase behar dituen eskakizunak berrestu egiten baitira, honela, ikaslea bere eginkizunaren zentroan jartzeko dituen baliabideak mugatuz.

Eta bagatuz, bada, hezkuntzako triangeluaren hirugarren erpinera: haurra, ikaslea. Aurrekoetan esandakoek haurrari erreferentzia zuzena egiten diote jada. Haurra bizimodu zatikatura eramaten dugu... Haurrari hezkuntzako prozesuetan eduki behar lukeen zentraltasuna beste hainbat elementuk ebasten diote.

Aipatutako 'hezkuntzatik hasi behar da' lelo horrek praktikan zein itzulpen izaten duen aztertzean honakoak topatzen ditugu: curriculumak zeharkako gai askorekin betetzen da, behin baino gehiagotan, haurrak hel-

duengana iristeko erabili nahi izaten direla dirudi. Hauek ote dira hiritar arduratsu eta konprometituak hezteko biderik onenak? Ez dut uste. Iruditzen zait arazoaren konponbide abstraktuak lantzea baino askoz ere baliagarriagoa izango litzatekeela beraien inguruarekin, bizitzarekin eta bizikidetzarekin zuzenean harremana eduki dezaketenen arazoak lantzea, eta jarduerak hauek irakasleen autonomia zabalemetik zedarritzea.

Zer esan dezakegu, berriz, haurrek kontsumitzeko ekoizten eta zabaltzen diren hainbat produkturi buruz? Telebistako hainbat saio, aparailu elektronikoetarako hainbat joku, Interneteko hainbat gune...? Beraien tizat guztiz erakargarriak gertatzen dira, baina haien aurrean duten paper pasibo eta inguruarekiko eta beste pertsonakiko isolatzaileak eta haiekin transmititzen zaizkien baloreek (estereotipoen bidez, bereziki), heziketa positibo baterako oztopo galantak direla pentsarazten digute. Gizarte paradoxiko honetan, haurrak ez ditugu babestu behar, helduentzako pentsatuak direlako, desegoki izan daitezkeen edukietatik bakarrik, baikik eta espreski beraien tizat disenaitutakoetatik ere bai, kontra-hezitzaileak izan daitezkeelako.

Gurasoak. Irakasleak. Haurra, gaztetxoa, ikaslea. Triangelu honetako hiru erpinak hezkuntza-komunitatearen eragile eta protagonista nagusiak dira. Eta beraien arteko harreman-dinamikak hezkuntza-komunitate zehatz bakoitzaren izaera deskribatuko digu.

Orain arte esandakoan hezkuntzaren inguruan bizitzen ditugun hainbat alderdi positibo aipatu gabe geratu dira. Arazoak baditugu, baina harro sentiarazteko elementuak eta potentzialtasun handia ere bai. Bizpahiru aipatuko ditut. Batetik, lorpen handia da gurean hezkuntza haur guztien eskubidea dela barneratuta edukitzea eta guztiei hezkuntzarako aukerak bermatzeko beharrezko inguruan dugun kontsentsu zabala. Bestetik, hainbat eta hainbat profesional aitatuak nitzuke eguneroko la-

naz eta ekinaz kalitatezko hezkuntza errealitate egiten dutenak. Eta hirugarren bat ere aipatuko dut, euskarak hezkuntzan lortu duen presentzia eta normalizazioa, oraindik erronka asko ditugun arren gai honetan ere azken hamarkadetan egindako ibilbidea izugarria baita.

Nire azterketa arazoetan zentratu da haiek soluziobidean jartzeko modua irudikatze gaitz bagara dauzka-gun elementu positiboaren eragina berretu egingo baita hauek espreski kontuan hartu gabe ere. Ez dut, beraz, hezkuntzaren ikuspegi negatibo eta ezkor batetik egiten; inondik inora; alderantziz baizik.

Izan ere, arazo-multzo honi hezkuntza-komunitate elkartu, kohesio-natu, konprometitu, dinamiko, aktibo, indartsu, ekintzaile... batek, elkarlanaren bidez, urrats txikiak eta handiagoen bidez, aurre egin diezaiokete beste ezein elementuk ez bezala.

Hezkuntza-komunitate kontzeptuak berekin dakar hezkuntza ardurak kolektiboaren denaren ideia, hau da, elkarrekintza eta testuinguru egokiak beharrezko direla eginkizun horretarako. Izan ere, indiarren atsoitzak dioen bezala "haur bat hezteko tribu osoa behar dugula". Ardurak kolektiboak izateak ez du esan nahi batzuen eta besteon ardurak berdina direnik. Baina besteari erantzukizun izpirik ostu gabe, bere ardurak hobeto bete dezan nik zerbait egitea baldin badaukat, hori Hezkuntzaren onerako izango da. Zer egin dezake amak edo aitak irakasleak berezko duen halako ardurak betetzea errazteko? Zer egin dezake irakasleak gurasoek berezko dituzten ardurak betetzea errazteko? Etab.

Hezkuntza-komunitatea ez da hor dagoen zerbait, etxe bat den bezala, baizik eta hezkuntza enfokatzeko modu bat da; irakasle-ikasle-guraso harremanak beste modu batera ulertzeak eta harreman horiek sustatzeko duen potentziala ulertzeak hezkuntza desberdin bat garatzeko aukera ematen baitigu.

Aurreko batean kirol elkarte bateko gurasoei eskaintzen zitzaion aur-

## Gizarte aurreratu batean hezkuntzaren inguruko eztabaida beti mahai gainean egongo da, hezkuntzak behar dituen baliabide eta testuinguruak etengabe hobetzen eta garatzen joateko



kezpen saioan egoteko aukera izan nuen. Eta benetan txalogarria iruditu zitzaidan bertan transmititu zena. Besteak beste, esaldi bat oso deigarri egin zitzaidan, horrelakoak gutxitan entzuten ditudalako, eta ez nuelako halakorik espero: gurasoek partidetan jarrera txarrak badituzte (bortizkeria, irainak, jarrera desagokiak...) egiturak huts egiten duela esan nahi du. Hau da, elkarteko arduradun zen aldetik horrelakoak gertatuz gero, gertaera horietan beren ardura propioa azpimarratzen ari zen, eta horrelakoak saihesteko beren jarrera eta baloreak zeintzuk ziren eta gurasoekin elkarlana eta konplizitatea nola bilatzen zuten, azken finean elkartetik pasatzen zen gaztetxoari bere garapenean ahalik eta marka positiboena uzteko. Arduradun honek hezkuntza-komunitate kontzeptua oso barneratua zuela ohartu nintzen, bere hizkeran ere nabari zena, komunitate hitza erabiltzen baitzuen.

Garai beretsuan, derrigorrezko hezkuntzako talde baten tutoreak gurasoekin egiten zuen bileran ere izan nintzen. Eta aitortu behar dut, bien konparaketa egitea ezinbestekoa egin zitzaidala. Derrigorrezko hezkuntzako tutoreak modu askoz ere mugatuagoan hitz egin zuen, hezkuntza-komunitatearen erreferentzia ez zeukan barneratua, bere egin-kizunetaz hitz egin zuen, zehaztuta zeuden gaiez, prozedurez, arauz, ebaluaketaz... Baina aipatzen ari garen triangeluko elkarrekintza sare

konplexua iradoki gabe geratu zen, eta gurasoak bilera hartatik zerbaiten faltaren sentsazioaz irten zirela seguru nago, asebeste gabe, estimulu positibo askorik jaso gabe.

Hezkuntza-komunitateak ez ditu biltzen interes kontrajarriak dauzkaten agenteak, inondik inora, baizik eta helburu berdin bat konpartitzen dutenak, hauxe: haurren edota gaztearen hezkuntzan (eta helduon garapenera ere zabal genezake ideia) modu positiboan eragitea.

Hezkuntzaz modu generikoan hitz egin dugu, eta hezkuntza-komunitateaz ere bai. Ekintzara pasatzera koan ordea, zedarritu egin behar dugu kasuan kasu.

Adibidez, emandako kirol-taldearen kasuan hezkuntza-komunitatea kirol elkarteko langile/bolondresak, haurrek, gurasoek eta baleude beste eragileek osatuko lukete (patrozina-doreak, udalak...). Ikastetxe baten hezkuntza-komunitatea begibistan da nortzuk osatuko luketen. Herri batekoa ala auzo batekoa, berriz, bertako ikastetxeetako hezkuntza-komunitateak eta haurrei zuzendutako gainerako ekintzenek eta udalak, besteak beste. Interes bereziak dituzten haurren hezkuntza-komunitateak ere defini genezake, etab.

Azkenik, gizarte baten hezkuntza-komunitateaz ere hitz egin behar da. Murrizketek eta batez ere LOMCE legerari oposaketak euskal hezkuntza-komunitatea piztu egin duela esan daiteke. Adiera zabal honetan sakonduz, komunitateak edo gizarteak, bere etorkizuneko gizabanakoak nola hezi eta zer transmititu nahi dien erabakitze eskubidea du, eta ez eskubidea soilik, baizik eta gizarte arduratsu eta konprometitu batean hau lehen mailako egin beharra ere bada. Gizarte aurreratu batean hezkuntzaren inguruko eztabaida beti mahai gainean egongo da, ez noraezean nabigatzeko eta haizearen arabera norabidea goizetik gauera aldatzeko, baizik eta modu eraikitzaile, positibo eta kontsentsu bilatzaile erabiliz, esperientzia eta ezagutzaren oinarritik, hezkuntzak behar dituen baliabide

eta testuinguruak etengabe hobetzen eta garatzen joateko. Dekretazoek, *ideia iluminatuek* eta mirarizko formulak ez dute balio, nahastu besterik ez dute egiten. Konformismoak eta autokonplazentziarik eza, lana, elkarlana, konplizitatea, komunikazio eta eztabaida aberatsa, elkarrekin eraikitzea... dira bide emankorrak.

Hezkuntza-komunitate zabalarekin egiten den lana, beraz, hezkuntzaren giltzarri eta estrategia nagusiak eztabaidatzeko eta zehazteko da. Baina, tokian tokiko hezkuntza-komunitateak eguneroko praktikara, arazoetara, abaguneak eskaintzen dizkigun aukeretara jauzi egitea ekarriko du. Eta bigarren maila honetan lan handia egin daiteke parte-hartze prozesuen bidez hezkuntza-komunitatearen potentzialtasuna norberenganatuz eta ahaletik eginera paseaz. Proiektuak eta helburuak gure egiten ditugunean haiekiko gure inplikazio maila areagotu egiten da. Hau gizakiari orokorrean aplikatu diezaiogun esaldia da. Proiektu eta helburuak gure egiteko ezinbestekoa da autonomia jardutea; autonomia nork bere buruari legeak ematea bezala ulertuta eta ez nahi dena egitea. Eraikuntza kolektiboko prozesuez mintzatzen ari gara. Bi baldintza baino ez ditut ikusten: batetik, prozesua zapuztu dezakeena alde edukitzea (adibidez, ikastetxearen kasuan zuzendaritza edo udalaren kasuan, alkatetzan), eta bestetik, gai hauetan esperientzia eta ezagutza duen erraztaileren baten laguntza edukitzea. Baldintza horiek gabe ere prozesu interesgarriak gerta daitezke seguru aski, baina horiek edukiz gero prozesu emankorra bermatuta dagoelakoan nago.

Hezkuntza-komunitateak bizitzeko elkarriketa esparruak sortu eta garatzea da bidea. Baina ez edonola koak. Kontuz! Edozein elkarriketarak ez du balio hezkuntza-komunitatea aktibatzeak. Partehartzaileentzako elkarriketa esanguratsuak behar dute izan. Bide honetan lan handia, emankor eta aberasgarria egiteko dago, denon mesederako. Hala gerta bedi!!


# argitalpenak



**Sugoitxoren ametsa**  
B. Ibarrola / S. Aguado  
Itzulpena: Miren Agur Meabe

## ELKAR

Sugoitxo herensugeak nahiago zuen kantatu ahotik sua bota baino. Gurasoek ez zuten hori ulertzen, eta haserretu egin ziren, semea beste herensuge guztiak bezalakoa ez zelako. Sugoitxo ez zegoen gustura harik eta egun batean bere kantuekin jendearen bizimodu alaitzen hasi zen arte. •



**Ama**  
Mariana Ruiz Johnson  
Itzulpena: Uxue Alberdi

## PAMIELA-KALANDRAKA

Maitasuna da testu errimatu honen muina. Haurtzaroari dagokion ipuina da, ulergarria adin eta kultura guztietako irakurlerentzat. Istorioa eduki eta koloretako irudi joritsuz osatua da. VI Nazioareko Album Ilustratuen Compostela Saria eskuratu du. •



**Hiru bidaiariak**  
Paxkal Bourgoin

## IKAS

*Katilua* eta *Behruz* ipuinekin batera "Dutea" izeneko trilogia osatzen du. Ipuinen bidez urruneko paisaiak eta kulturak ezagutzeko parada ematen du 8 urtetik gorakoendako bilduma honek. Ipar Afrikako basamortuan, Japonian eta Teheranen barnako bidaia da. Elkarbizitza eta tradizioarekin loturiko gaiak ere ageri dira. •



**Mondrago**  
Ana Galan / Pablo Pino

## AIZKORRI


Ongi pasatzeko eta entretenitzeko hamaika ezaugarri du bilduma honek: hegan egiten duten herensugeak, gazteluak, abenturak, misterio ez-kutuak, gainditu beharreko erronkak... Bilduma arrakastatsua zazpi liburu argitaratu dituzte euskaraz. Horrez gain, jardueraz beteriko bi liburuxko kaleratu dituzte orain. •



**Artzaina izan nahi dut eta zer?**  
Txani Rodriguez / Jokin Mitxelena

## ELKAR

Bilboko etxe dotore batean bizi da Ettore. Abokatua du ama, eta medikua aita. Bere etorkizunerako hobe delakoan, ikastetxe pribatu batera jotzen da ikastera, eta alemanezko eskoletara eta kontserbatoriora bidaltzen dute gurasoek. Etorrek baina, beste asmo eta gogo batzuk ditu: ahal bezain azkar artzain izan nahi du. •



**Nur eta kobazulo liluragarria**  
T. Martinez de Lezea / J. L. Landa

## EREIN

Iratiko oihanean sartu dira Nur eta bere adiskide Iraia eta Maddi. Hainbat lagun ezagutu dituzte han: Koldo, iratxo-gidaria; Basajaun eta Basandere, oihaneko nagusiak; Anxo, Arpeako kobazuloan bizi den erraldoia... Nur bildumako 10. liburua da. Istorio dibertigarriarekin batera, argazki bilduma oparitzen du Nurrek. •

# hik hasi-ren proposamena

## PAGOETAKO PARKE NATURALA

# Natura eta kultura saski berean

**Pagoetako Parke Naturalak ingurune naturalaz zein kulturalaz gozatzeko aukera ematen dio bisitariari. 2.860 ha-ko azalera hartzen du, zati handiena Aiako udalerraren (Gipuzkoa) barnean dago, eta, Zarautz eta Zestoaren artean banatzen da. Izena 678 m-ko altuera duen Pagoeta mendiari zor dio.**

Pagoeta 1998ko irailaren 29an deklaratu zuten parke natural. Animalia eta landareak nahiz euskal kultura eta historia ezagutzeko hainbat jarduera eskaintzen dizkie ikastetxeei, hala nola, erleen mundua, elikaduraren eremua, ekosistemen osagaiak, edota Agorregiko burdingintza eta erro-tarritza.

Parkea ezagutzen hasteko, egokiena Iturraran Parketxera gerturatzea da. Bertan, behar bezala informatu eta laguntzen baitzaio bisitariari. Hortik aurrera, bakoitzak dituen lehenetasunen arabera, erakusketa, natura, ondare edo mendi-ibilaldien eskaintzaren artean aukeratu ahal izango du.

### **Iturraran parketxea:**

#### **Pagoetako informazio gunea**

XVIII. mendeko jatorrizko egu-



rrezko egitura mantentzen duen baserri ederra da eta bisitariantzako harrera-gunea izateaz gain, Pagoetako Parke Naturalaren interpretazio-zentroa ere bada. Pagoetako ingurune fisikoa eta etnografikoa ezagutarazten laguntzen duen erakusketa iraunkorra, tailer didaktikoa eta euskarri interaktiboak daude Iturraranen.

### **Lortegi botanikoa**

Iturraran Parketxearen ondoan dago eta 25 hektarea ditu. Horietatik 10 hektarea bertako zuhaitzenak, eta

5 hektarea mundu guztiko landare-diaren erakuslehoi dira. Badago arriskuan dauden Euskal Herriko landareen bilduma bat ere. Lorategiko bisita errazteko 3,5 kilometroko luzera duen ibilbide bat osatu da. Zuhaitz eta landare mota guztiek txartel bat dute alboan eta bertan zein familiatakoak diren, zein izen botaniko duten eta nongoak diren zehazten da.

### **Agorregiko burdinolak eta errotak**

Iturraran parketxetik hurbil daude. Erdi Aroan eraikiak dira eta uraren





indarrez funtzionatzen dute. Izan ere, Erdi Aroaz geroztik Euskal Herrian ura maiz erabili da energia sortzeko. Agorregikoa burdinola nagusia zen. Bertan burdina lortzen zen gero burdinola txikietara eraman eta lantzeko. Errotetan berriz, gari edo arto alea xehetuz irina lortzen zen.

XVIII. mendean berreraikitako instalazio hidraulikoari jarraituz zaharberrituta daude eta gaur egun martxan ikus daitezke.

### Erlategia

Iturraran parketxetik gertu eta helburu didaktikoekin, erlategi bat eraiki da eta bisita gidatuetan erlauntzen egitura eta antolaketa zuzen zuzenean ikus daiteke bertan. Euskal Herriko erle beltza dago bertan. Erlea ekosistemaren polinizatzaile nagusienetakoa da, horregatik da hain garrantzitsua bere kontserbazio eta zabalakuntza.

### Sarrolako betizuak, pottokak eta orainak

Galtzeko arriskuan dauden etxe-abere arrazen babeslekua ere bada Pagoetako Parke Naturala, arbasoen garaian fauna basatia etxekotzeko egin zuten lanaren adierazgarri, hain zuzen. Nahiz eta bisitariek animali basatiak ikusteko aukera handirik ez izan, Sarrola inguruan badira erdi-aske bizi diren hainbat betizu, pottoka eta orein.

### Atsedan lekuak

Pagoetako Parke Naturalak lau atsedan leku ditu, mahaiz, parrilaz eta iturriz hornituak. Zudugarai gainetik (Orioko gaina ere deitua) Aiarako errepidearen albo batean daude hiru eta Altzolako bailaran bestea.



## Pagoeta Parke Naturala

20809 AIA

Tel: 943 835 389

iturraran@gipuzkoamendizmendi.net

www.iturraran.org

## Ikastetxeentzako eskaintza

| ERLEAK EZAGUTZEN<br>(LH 1. eta 2. zikloak, HH 5 urte arte)   | PAGOETAKO EKOSISTEMAK<br>(LH 3. zikloa)  |
|--|--|
| + Erleen zuzeneko behaketa<br>+ Ipuinaren jolasa<br>+ Erleen produktuen dastaketa<br>+ Kandelagintza   | <b>GOIZEZ:</b><br>+ Mendi ibilaldia Sagastizabalgo natur eskolara eta ginkana<br>+ Unitate didaktikoa landu<br><b>ARRATSALDEZ:</b><br>+ Txokoetako jolasak, animaliak, landaretza eta geologia aztertuz  |
| - Iraupena: 3 ordu<br>- Salneurria: 3 €  | - Iraupena: 6 ordu<br>- Salneurria: 6 €  |
| ELIKADURA eta INGURUMENA<br>(LH 1. eta 2. zikloak)   | PAGOETAKO ANIMALIAK<br>(LH 3. zikloa)  |
| + Zerealak ezagutu eta ogi opilak egin<br>+ Elika-piramidearen jolasa<br>+ Mendi ibilaldia Agorregira errotak lanean ikustera                            | <b>GOIZEZ:</b><br>+ Mendi ibilaldia Sarrolan barna (oreinak, pottokak, betizuak...)<br><b>ARRATSALDEZ:</b><br>+ Unitate didaktikoa landu<br>+ Hitz sekretuko animalien ezaugarriak eta bizilekua ezagutu |
| - Iraupena: 3 ordu<br>- Salneurria: 3 €  | - Iraupena: 6 ordu<br>- Salneurria: 6 €  |
| BURDINGINTZA eta ERROTARITZA<br>(DBH 1. eta 2. zikloak, batxilergoa)   | * Oharra: bazkaria etxetik eraman behar da   |
| + Errotaritzaren inguruko ikusentzunezkoa<br>+ Burdingintza landu, antzinako lanbideen maketak ikusiz<br>+ Agorregiko errotak eta burdinola lanean ikusi |  |
| - Iraupena: 3 ordu<br>- Salneurria: 3 €  |  |
| LANDARETZA<br>(LH 3. zikloa, LH 4. Maila)  |  |
| + Lorategi botanikoan ibilaldia eta ginkana jokoa<br>+ Basoen jolasa<br>+ Unitate didaktikoa landu   |  |
| - Iraupena: 4 ordu<br>- Salneurria: 3 euro   |  |

# atzeko atetik



**Oier ARAOLAZA**

Dantzaria

Eskola urteak festa urteak izan ziren niretzat. Bai ederki pasa nuela! Ez daukat gogoan arduraren handirik. Ziur aski, nire irakasle eta gurasoek ez dute nik bezain oroitzapen onik izango. Isilik egoten lanak izaten nituen, eta eserlekuan gelditu egotea ezinezkoa zitzaidan. Ikastolara ongi pasatzera joaten nintzen ni, eta horretarako, orain esaten den bezala, jarrera pro-aktiboa neukan: jolaserako, kanturako, dantzarako, txorakerietarako, bihurrikerietarako eta zirikatzeke beti prest!

Etxean egin beharreko eskolokolanekin (etxeko-lanak beste batzuk dira, ala?) ere ez nuen burukomin askorik izaten. Orain seme-alabek etxera ekartzen dituzten eskolokolanen aldean oso gutxi izaten genituen guk. Eta izaten genituenean ez nuen arduraren handirik izaten. Zenbat aldiz, goizean, autobusean ikaskide batek "bigarrenen zer jarri duzue?" galdetu, eta orduan akordatu hiru ariketa genituela etxean egiteko. Motxilatik ateratzean gabe etxetik pasatu zen koaderno ireki, zirrimarra batzuk egin eta segi jolasean. Nik feno-

## Kulunkaria

meno pasa nuen eskola garaian.

Latorrizko danborraren protagonistak, Oscarrek, hiru urte zituela erabaki zuen ez zela gehiago haziko. Nik ez nuke hiru urterekin geratu nahi, sei urteak ere zoragarriak iruditu baitzitzazkidan, baita bederatziak eta hamabiak ere... Baina behin hamazortzira iritsita pozik itzuliko nintzateke atzera hirura, berriz hasteko.

Gorputza atzera bota, eserlekua aurreko oinak altxatu eta aulkia kulunkaria bailitza erabiltzen nuen gelan. Zenbat errieta horren kontura, bai etxean eta bai eskolan. Horiez zela formalidadea ikasgelan egoteko, aulkia horrela apurtzen zirela, e.a. Gaur egun lanean ere kulunkan pasatzen dut eguna, orain atzera, orain aurrera, berriz atzera... Orain, baina, primerako aitzakia teknika daukat horretarako: ergonomia. Gerriko minarekin hasi nintzen, eta arreba fisioterapeutak aholkatu eta oparitu zidan aulki kulunkaria. Edozein dela ere, ez baitago zortzi orduz mantentzeko postura egokirik. Kulunkariarekin hor nabil egun osoa atzera eta aurrera, eserita nagoen itxuran, baina gorputza dantzan egun osoan. Gerriko minik ez dut izan berriz harezkerok.

Gaur goizean, alaba ikastolara joateko esnatu dudanean, "azken eguna Izar! Bihar oporrak!" bota diot. Alabak

erantzun dit, berak ikastolan, lagunekin, oso ongi pasatzen duela eta nahia go lukeela oporretan ere eskolara joatea, haiekin jolasean egin ahal izateko. Andereñoak bileran esan digu gure alabak ez dakiela isilik egoten, ipurdia airean daukala beti, erdi-altxatuta hango edo hemengo ikaskideekin olgetan. Ni saiatu naiz guraso arduratsuen eta arduratuaren plantak egiten, baina barrerean alabarekin identifikatua sentitzen nintzen. Eguna eskolan pasa eta etxera iritsitakoan, seme-ari eskolokolanekin behar dituela esan, eta berak jolastea nahia go duela erantzuten didanean zer esan jakin gabe geratzen naiz.

Diziplina, lan-ohiturak, jarrera, atentzioa, arduraren... umeez horiek guztiak eta gehiago barneratu behar dituztela esaten digute, eta zenbat eta lehena go hobea dela, gerorako utzita beranduegi izan daitekeela. Ziur aski halaxe izango da, nik ezer gutxi baitakit heziketaz. Gainera, esango nuke, berrogei urte pasarekin ere ez ditudala barneratu horietako gehienak. Bai, badakit gure seme-alaben hezkuntzaren arduraren nagusia gurasoek dagokigula, eta eskolaren dagokion baina gehiago eskatzen ari gatzazkiola. Gurasoek gure seme-alabentzat eredu izan behar garelako esaten digute, baina nik aulkian kulunkan egiten jarraitzen dut.

"Hezkuntza-subiranotasunera joan behar dugu".

Koldo Saratxaga

# Pirritx, Porrotx eta Marimotots

## Sentitu, pentsatu, ekin!

Liburua + haurrentzako DVDa



# 25

urte bete dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak aurrenekoz taula gainera igo zirenetik. Ibilbidea hasi zutenetik hamaika bizipen izan dituzte, beraien sekulako arrastoa utzi eta euren unibertso propioa sortuz; liburu hau dugu horren guztiaren lekuko. Amagoia Mujika kazetariak eginiko kronika honi esker, sudur gorriaren eraginpean bizi diren Aiora, Joxemari eta Mertxe ezagutuko ditugu zuzenean.

Horretaz gain, txikienen gozagarri izango diren pailazoen hogeita bost bideoklip jasotzen dituen DVDa eman dugu argitaratu.

eskaerak  
[www.katxiporreta.com](http://www.katxiporreta.com)

**Katxiporreta**  
KOOP.E.U.

Oria etorbidea, 10  
Brunet Eraikina 5, E-4  
20160 LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 368 404

# 2014 hezitzailea: hezkuntza komunitatea indartzeko urtea



**Hazi Hezi**  
harpidetza  
20 euro urtean



[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)